



Hondarribiko Agenda 21:

IRAUNKORTASUN DIAGNOSTIKOA

2008ko apirila



Hondarribiko Agenda 21

Hondarribiko Iraunkortasun Diagnosiaren idazketan eta berrikuspenean parte hartu duten erakunde eta entitateak:

- Auif S.A. (Autobuses Urbanos de Irun y Fuenterrabia)
- Bidasoa Bizirik (Bidasoaldeko Garapen Agentzia)
- Bidasoa-Txingudi eskualdeko hezkuntza zentroak
- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa
- EEE (Euskal Energiaren Erakundea)
- Eusko Jaurlaritza
- Euskotren
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Gipuzkoako Merkataritza Bazkundea
- Hondarribiko Udala
- Hendaiaiko Udala
- Iberdrola
- IHOBE (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa)
- Irungo Udala
- Iparbus
- Izadi 21
- LKS S. Coop.
- Plaiaundi Parke Ekologikoa
- Renfe
- San Markos-eko Mankomunitatea
- Txingudiko Zerbitzuak (Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatea)

Aurkibidea

Orrialdea

0.	SARRERA: AGENDA 21	6
0.1	Garapen iraunkorraren eta agenda 21en aurrekariak.....	6
0.2	Hondarribiako tokiko Agenda 21 (Txingudiko udaltalde 21).....	8
1.	DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA. LABURPENA.....	12
1.1	Hondarribiko eredu sozioekonomikoaren inguruko gogoetak, jasangarritasunaren ikuspegitik	12
1.2	Hondarribiko egoera sozioekonomikoaren inguruko laburpena, jasangarritasunaren ikuspegitik	
2.	LURRALDE ANTOLAKUNTZA. LABURPENA	20
2.1	Hondarribiko lurralde antolakuntzaren inguruko gogoetak, jasangarritasunaren ikuspegitik	24
2.2	Lurralde Antolakuntzaren laburpena Hondarribian, jasangarritasunaren ikuspegitik	43
3.	GARRAIO ETA MUGIKORTASUNA: LABURPENA	49
3.1	Garraio eta mugikortasunaren inguruko gogoetak, jasangarritasunaren ikuspegitik	49
3.2	Hondarribiko garraioa eta mugikortasunaren laburpena, jasangarritasunaren ikuspegitik	50
4.	INGURUMENA: LABURPENA	53
4.1	Hondarribiko ingurumenaren inguruko gogoetak, jasangarritasunaren ikuspegitik.....	53
4.2	Hondarribiko ingurumenaren inguruko laburpena, jasangarritasunaren ikuspegitik	67
5.	INGURUMEN BEKTOREAK: LABURPENA	70
5.1	Hondarribiko Ingurumenaren gaineko gogoetak jasangarritasunaren ikuspegitik.....	70
5.2	Hondarribiko ingurumen bektoreen laburpena, jasangarritasunaren ikuspegitik.....	79

6. HONDARRIBIAREN DIGANOSTIKOA: ZEHAZTU DIREN JOEREN INGURUKO
ONDORIOAK83

0. SARRERA: AGENDA 21

0.- SARRERA: AGENDA 21

0.1 GARAPEN IRAUNKORRAREN ETA AGENDA 21EN AURREKARIAK

Hondarribiko iraunkortasun diagnostikoa udalerriko Tokiko Agenda 21en prozesuaren baitan kokatzen den hasierako dokumentuetako bat da, zeinaren bidez udalerriko errealitatea iraunkortasunaren ikuspuntutik aztertzen den. Baina, zer da **garapen iraunkorra** eta zertan datza **Tokiko Agenda 21**en prozesuak?

Galdera honi erantzuteko hurbilpen historiko bat egitea ezinbestekoa da, aipatu kontzeptuak zein testuinguru historikotan kokatzen ziren ulertzeko.

Aspalditik ezaguna da ingurumenaren egoerak gure gizartearen garapenean duen eragina eta aldi berean, gizakion ekoizpen eta kontsumo ohiturek sortzen dituzten ingurumen, ekonomia eta gizarte eraginak. Nazioarte mailan erakunde, organismo eta gizarte eragile ezberdinek ere erlazio honen garrantzia azpimarratu dute behin baino gehiagotan.

1972. urtean Estocolmoko hirian Nazio Batuen Elkarteak Giza Ingurumenari buruzko Konferentzia antolatu zuen. Bertan, Konferentzia parte hartu zuten kideek lehenengo aldiz aitortu zuten nazioarteko mailan munduko ingurumen arazoa eta arazoaren garrantziaz ohartarazi zuten. Urte berean, *Club de Roma* izenaz ezaguna den adituen taldeak Ameriketako Estatu Batuetako Massachusetts-eko Institutu Teknologikoko Meadows irakasleari gizarte mehatxatzen duten joera eta arazo ekonomikoei buruzko ikerketa sakon bat egiteko eskatu zioten. Ikerketa horren emaitza *Hazkundearen Mugak* izeneko txostena izan zen, *Meadows Txostena* bezala ere ezagutzen dena. Dokumentu horretan bereziki azpimarratu zen mendebaldeko gizarteetako ekoizpen eta kontsumo eredua jasanezina dela etorkizunera begira, munduko baliabide naturalak agortu ezinak balira bezala jokatzen duelako eta mundu mailan sortzen dituen gizarte eta ekonomiazko desorekak izugarriak direlako. Txostenaren ondorioek zeresan handia izan zuten mundu mailan, hala nola; petrolioaren prezioa izugarri igo zen, mendebaldeko gizarteetako herrialdeetan krisialdi ekonomikoa pairatu zuten, mundu mailako lehen talde ekologistak sortu ziren, energia iturri alternatiboak bilatzeko lanei ekin zitzaion, eta abar.

1987an Nazio Batuen Elkartearen Ingurumen eta Garapenaren Batzordeak *"Gure etorkizun komuna"* izeneko txostena (*Brundtland*

txostenarekin ere ezaguna dena) argitaratu zuen. Aipatu txostena garai hartan Norvegiako presidentea zen Brundtlan andereak zuzendu zuen. Bertan adierazten zen ingurumena eta garapenaren arteko oreka lortzea datorren urteetako arazo nagusienetakoa izango zela. Azpimarratu behar da 1987 urtean finkatu zen Garapen Iraunkorra kontzeptua nazioarte mailan: ***garapen iraunkorra gaur eguneko beharrak asetzeko gai den garapena da eta, aldi berean, etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarriko ez duen garapen eredu gisa uler daiteke.***

Testuinguru honetan, Nazio Batuen Elkarteak 1992. urtean, Rio de Janeiron (Brasil), Ingurumen eta Garapenerako Nazio Batuen Batzarra ospatu antolatu zuen: *Lurraren batzarra*. Konpromiso ugari hartu ziren bertan:

- Aldaketa Klimatikoari buruzko Hitzarmena
- 21 Programa (Agenda 21 izenez ere ezaguna dena)
- Biodibertsitatearen Zaintzarako eta Lehorteen Aurkako Hitzarmenak
- Basoen Babeserako Adierazpena
- Ingurumena eta Garapenari buruzko Rioko aitortpena

Aipatu konpromisoetatik, dagokigun gaiari erreparatuz, 21 Programa/Agenda 21 litzateke azpimagarriena, garapen iraunkorraren alde lan egiteko ekintza plan globala delako. Agenda 21 dokumentuaren 28. kapituluaren jasotzen denez, iraunkortasunarekin zerikusia duten arazo eta irtenbideetariko asko tokiko ekimen eta erakundearen parte hartze eta elkar laguntzaren menpe daude. Horregatik Agenda 21en helburuak lortzeko nahitaezkoa da tokiko erakundearen parte hartzea; herritarrenganako erakunderik gertuena den heinean, garapen iraunkorraren aldeko hezkuntza sustatu eta jendearen inplikazioa bilatzeko administrazio organorik egokien da.

2002. urtean, Johannesburgon ospaturiko Lurraren II. Gailurrean (*Rio + 10* delakoa), Agenda 21en aplikazio eraginkorra lortzeko agintaritzak maila guztietan indartu eta hobetzeko konpromisoa onartu zen.

Europako Batasunari erreparatuz gero, 1973 urteaz geroztik bultzatu ziren ingurumen programez gain (une honetan VI. Programa 2002-2012 dago indarrean), bi une azpimarra ditzakegu: Europako Garapen Iraunkorraren Aldeko Estrategiaren onarpena (2001) eta Aalborg-eko Konferentziaren sorrera (1994). Lehenari dagokionez, dokumentu honek Europa mailatik iraunkortasunaren alde lan egiteko lerro estrategikoak eta ekintzak finkatzen ditu, estatuak beren iraunkortasun estrategia propioak onartu behar dituztela aginduz. Bigarrenari dagokionez, 1994 urtean, Danimarkan kokatuta dagoen

Aalborg izeneko hirian, Europako Herri eta Hiri Iraunkorren Sarea sortu zen eta Aalborg-eko Ituna deritzona onartu zuten bertaratutako agintariek. Aalborg-eko Ituna iraunkortasunaren alde lan egin nahi duten herri eta hirietako agintariek beren konpromiso islatzeko balio duen dokumentua da.

Eusko Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2002. urtean Eusko Jaurlaritzak Garapen Iraunkorren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Euskal Ingurumen Esparru Programa (2002-2006) onartu zituen. Esparru Programari dagokionez, berriki 2007-2010 urteetarako programa berria onartu da (EAEko II. Ingurumen Esparru Programa). Txosten honetan etorkizuneko belaunaldien bizi kalitatea baldintzatuko ez duen egungo bizi kalitatearen hobekuntza lortze aldera gizarteak erdietsi beharreko ingurumen helburuak jasotzen dira, ekonomia eta gizarte eragileentzako jardunbide batzuk ezarriz, Tokiko Agenda 21 prozesuaren bitartez aurrera eramane daitezkeenak. Beraz, Tokiko Agenda 21ak udalerrri edo eskualde mailatik garapen iraunkorrerako bidean aurrera pausoak ematea ahalbidetzen duten lan tresnak eta era berean, prozesu bat dira.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar eskola komunitatean 21 Programa (Agenda 21) barneratzearen beharra. Izan ere, etorkizuneko belaunaldiek eskoletan jasoko dituzte euren bizitza eta garapena baldintzatuko dituzten irizpide eta baloreak. Horregatik, Tokiko Agenda 21 prozesuaren barnean Eskolako Agenda 21 aurrera eramaten dira, eskola komunitatea osatzen duten eragileek ere garapen iraunkorraren bidean aurrera pausoak ematen laguntzeko.

0.2. HONDARRIBIAKO TOKIKO AGENDA 21 (TXINGUDIKO UDALTALDE 21)

2004ko azaroan Txingudiko Udaltalde 21 ekimena martxan jarri zen Hondarribian eta Irunen Tokiko Agenda 21en prozesuak abiarazteko (udalerrri bakoitzean prozesua martxan jartzeko, nahiz eta ekintza asko batera garatu – komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak esate baterako-). *Udaltalde 21*ak EAEn Tokiko Agenda 21ak abiarazteko martxan jarritako eskualde bereko udalerrriek osatzen duten lan taldea da, Eusko Jaurlaritzako Ihobe Sozietate Publikoak, Foru Aldundiek eta eskualdeko mankomunitate edo agentziek ere osatzen dutena (azken hauek koordinazio funtzioa izaten dute).

*Udaltalde 21*ek izaten duten iraupena mugatua izan ohi da; lan talde hauek sortzen dira Tokiko Agenda 21en hasierako fasean (diseinu fasea) eta behin udalerrriak *Udalsarea 21*ean sartzean -Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea- udalerrri bakoitza Tokiko Agenda 21en bigarren faseari ekiten dio (Tokiko Ekintza Planen ezarpena fasea) eta bidea ez du normalean

Udaltalde 21 moduan egiten, Udalsarea 21 osatzen duten udalerriekin batera baizik.

Udaltalde 21en kide diren udalerriek Tokiko Agenda 21en diseinu fasean eman beharreko oinarrizko pausoak honakoak dira:

- Ordezkarri politiko eta teknikoak prozesuaren inguruan informatu (Agenda 21en helburuak, faseak, eta abar azalduz): Hondarribian eta Irunen udal langileei zuzendutako Agenda 21en informazio saioak 2005eko 1. hiruhilekoan egin ziren.
- Aalborg-eko Ituna sinatzea: Europako Herri eta Hirien Iraunkortasunaren Aldeko dokumentua da eta berau sinatzean Europako udalerriek garapen iraunkorraren alde lan egiteko duten konpromisoa aipatu dokumentuan islatzen dute. Hondarribiko udalak Aalborg-eko Ituna 2008ko otsailaren 27ko udalbatzan sinatu zuen. Irunek 2000. urtean sinatu zuen Aalborg-eko Ituna.
- Diagnostiko teknikoaren idazketa eta onarpena udal plenoan: Irunen udal diagnostikoa lehenik bozeramaileen batzordean onartu zen (2006ko ekainean) eta ondoren udal plenoan 2007ko otsailean. Hondarribian udal diagnostiko udal langileen artean 2006ko irailean aurkeztu zen, ondoren udaleko alderdi politikoetako ordezkariak helarazi zitzaizkien eta azkenik 2008ko otsailaren 27ko udal osoko bilkuran onartu zen.
- Herritarrek parte hartzeko mekanismoak martxan jartzea: Hondarribian Agenda 21 Tokiko Ekintza Plana idazteko lanak hasten diren Agenda 21en Herritarren Foroa abiaraziko da. Irunen kasuan, 2006ko uztailean udalak "Irun 21 Kontseilua" sortu zuen, eta bertan Irungo edo Irunekin nolabaiteko zerikusia zuten udalerriko elkarte, entitate eta pertsona adituek parte hartu zuten.
- Iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plana diseinatu eta plenoan onartzea: Hondarribia aurki hasiko iraunkortasunerako I. Tokiko Ekintza Plana diseinatzen udaleko langileen eta herritarren parte hartzearekin batera. Irungo udalak bere I. Tokiko Ekintza Plana 2007ko otsailean onartu zuen udalbatzan.
- Jasangarritasunaren aldeko Euskal Konpromisoa izenpetzea: Hondarribiko udalak ez du oraindik sinatu. Irungo udalak Tokiko

Ekintza Plana eztabaidatu zen udalbatza berean onartu zuen aipatu dokumentua.

Pauso hauek emanda, udalerriek Tokiko Agenda 21en diseinu fasea amaitu egiten dute eta Tokiko Ekintza Plana ezartzeko faseari ekiten diote *Udalsarea 21*en sartu ostean. Bidasoa-Txingudi eskualdeari dagokionez, Irungo udalak 2007ko otsailerako aurreko pausoak bete zituenez Udalsarea 21en sartu zen eta Txingudiko Udaltalde 21i amaiera eman zitzaion.

Dena den, badaude Udalsarea 21en sartu arren Udaltalde 21 moduan ere lan egiten jarraitu nahi duten udalerrak ere, iraunkortasunaren prozesuan elkarrekin hainbat ekintza eramateko (eskualde mailako ekimenak gauzatzeko: komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak esaterako).

1. DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA: LABURPENA

1. DIAGNOSTIKO LABURPENA

SOZIOEKONOMIKOA.

1.1 Hondarribiko eredu sozioekonomikoaren inguruko gogoetak, jasangarritasunaren ikuspegitik

DEMOGRAFIA DINAMIKA OSO POSITIBOA

- 1991-2004 denboraldian, ehunekoei dagokienean, urtean %18tik gorako erritmoan hazi da Hondarribia, eta 16.000 biztanletik gora ditu jadanik. 2007ko datuak aintzat hartuz, 16.364 biztanle bizi ziren Hondarribian; ondorioz, bertako populazio-dentsitatea altu samarra da (568,2 biz./km²), Gipuzkoako lurralde historikoarekin alderatuta (340,1 biz/Km², 2001ean).

Hori dela-eta, Hondarribia izan da, Irun eta Zarautzekin batera, 2000-2004 aldian biztanlerian hazkunde gehien izan duen 10.000 biztanletik gorako udalerria, Gipuzkoan.

Auzoka aztertuz gero, 2006 urtean, populazio gehiena Akartegi eta Gornutz auzoetan pilatzen da (%16), Soroeta eta ingurua (%10), Mendelu (%10), Portua (%9) eta Alde Zaharra (%9). Bestalde, populazio gutxien duten auzoak Jaizubia, Gibeleta eta Zubieta (%5) dira, Portua eta hondartzako kai-muturraren artean dagoen zonaldearekin batera.

- Hondarribiko biztanleria gero eta zaharragoa da, baina Gipuzkoako Lurralde Historikokoa eta EAEko datuekin alderatuz, batzbestekoaren azpitik dago zertxobait.

Biztanleriaren egituraketaren ikuspegitik begiratuta, adin tarteen arabera, biztanleriak banaketa gazteagoa aurkezten du Gipuzkoako Lurraldeko gainerakoarekin alderatzen badugu. Halaz ere, azken 25 urteetan, %50 baino gehiago igo da 65 urtetik gorako biztanleria (Gipuzkoan %73), eta 19 urtetik beherako biztanle kopurua, berriz, ia erdira murriztu da (Gipuzkoan %47). Horrenbestez, garbi dago, biztanleria zahartzen ari dela.

- Hazkunde begetatiboaren gorakada handia eta imigrazio atzeritarraren hezkunde apala.

Bi osagaitan du oinarria biztanle kopuruaren bilakaerak, hauxe da, hazkunde begetatiboa eta migrazio saldoa. Lehenengoari dagokionean, hura positibo mantendu da urtetik urtera eta hazteko joera erakutsi du, batik bat 2001. urtetik aurrera. Horri dagokionean, Gipuzkoako eta EAeko batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da jaiotza tasa Hondarribian, heriotza tasa, berriz, txikiagoa da.

Migrazio-mugimenduei dagokienez, 2007an, 825 etorkin atzerritar bizi ziren Hondarribian; zehazki, erroldatutako biztanleriaren %5.

IKASKETA MAILA HANDIAK ETA EUSKARAREN ERABILERA ERTAINA-TXIKIA

- Gipuzkoako eta EAeko batez bestekoa baino handiagoak dira biztanle hondarribiarren ikasketa mailak.

Gipuzkoan eta EAean analfabetoen eta ikasketarik gabekoen ehunekoa guztizko biztanleriaren %5 ingurukoa den bitartean, Hondarribian %1,5era murrizten da ehuneko hori. Era berean, EAean eta Gipuzkoan goi-erdi mailako eta goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen ehunekoa %20 ingurukoa den bitartean, %26,2koa da Hondarribian.

- Hezkuntza eskari handia haur hezkuntza zikloan.

2007-2008 ikasturtean, irakaskuntza ez unibertsitarioan matrikulatuta zegoen ikasle-kopurua 2.373ra iritsi zen. Datu horiek 99/00 ikasturteari zegozkienekin alderatuz gero (2.104 matrikulazio), matrikulazio guztien kopuruan hazkunde handia gertatu zela ikus daiteke, zehazki %12,78a.

Gertakizun hori benetan garrantzitsua da hezkuntza ekipamenduen eskaintza biztanleen behar gero eta handiagoetara egokitzeko beharraren ikuspegitik begiratuta.

- Euskaldun kopuru handia, hizkuntzaren erabilera normalizatua dagoela esan nahi ez badu ere.

Hondarribian Gipuzkoako Lurralde Historikoko eta EAeko batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da euskaldunen ehunekoa, %60,5 euskaldunak baitira, baina horrek ez du esan nahi hizkuntzaren erabilera normalizatua dagoenik eguneroko bizitzako esparru desberdinetan.

Euskararen erabilera mailaren ikuspegitik begiratuta, unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzetan, haur eta lehen hezkuntzan oinarritzen bagara, aipatzekoa da, izen ematerik ez dagoela A¹ eta X² eredueta, eta D³ ereduak aukeratzen dutela ikasleen %52k eta B⁴ ereduak %48k. Halaz ere, irakaskuntza ereduak ez du esan nahi harreman pertsonaletan euskaren erabilera normalizatua dagoenik. Hala bada, 12 eta 17 urte arteko gazteen %25ek soilik erabiltzen dute euskara hizkuntza nagusi gisa beren lagun arteko harremanetan, familia arteko harremanetan, berriz, %33,6ra igotzen da ehuneko hori.

BIZTANLERIA OKUPATUAREN HAZKUNDE HANDIA

- Gipuzkoakoa baino erritmo handiagoan hazten ari da herrian bizi den biztanleria okupatua, zerbitzuen sektorean batik bat.

Hondarribiko udalerrian bizi den biztanleria okupatua 6.640 lagun ziren 2001ean. Zifra horrek esan nahi du %32,4 gora egin duela biztanleria okupatuak 1991. urteari dagokionean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan izandakoa baino hazkunde nabarmen handiagoa (%24,1), izandako biztanleria hazkundearen ondorioz gertatu da hori neurri handi batean. Hondarribiako biztanleria aktiboa 2003an 8.039 zen, %77,1ko aktibitate tasa batekin (Bidasoa-Txingudiko eta Gipuzkoako batez bestekoaren gaineratik, %69,5 eta %72,0 hurrenez hurren).

Sektore arteko banaketari dagokionean, Zerbitzuen sektorea da presentzia handiena duena %66,3rekin, haren atzetik industria dator %20,6rekin eta gero lehen sektorea %7rekin. Horri dagokionean, honako hauek dira Hondarribian azpimarratu beharreko beste elementu batzuk:

Gipuzkoako eta EAeko zifrekin alderatzen badugu, lanbideen azterketak erakusten du, alde batetik, biztanleria okupatuaren proportzio handiagoa dagoela kudeatze eta teknika mailako postuetan, lehen sektoreaz gainera, arrantza jardueraren ondorioz.

¹ A Eredua: Irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira, euskara irakasgaia izan ezik.

² X Eredua: Irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira, eta euskara irakasgaia ez da ematen.

³ D Eredua: Irakasgai guztiak euskaraz ematen dira, gaztelania irakasgaia izan ezik.

⁴ B Eredua: Hezkuntza eredu elebiduna eskaintzen da, irakasgaiak bai gaztelaniaz bai euskaraz.

Zerbitzuen sektore aldeko joera orokorra erakusten du herrian bizi den biztanleria okupatuaren bilakaerak. Hala bada, 1996-2001 denboraldian, lau puntu gora egin du zerbitzu jardueran okupaturikoen ehunekoak.

Hala eta guztiz ere, Hondarribian, oraindik ere handia da lehen sektorean okupaturiko biztanleriaren ehunekoa (%7koa, %1,7 eta %1,8ren aurrean, hurrenez hurren). Batik bat arrantza jardueraren ondorioz gertatzen da hori, Hondarribian okupaturiko biztanleriaren %5,6 horretan ari baita.

- Langabezia maila onargarriak, baina biztanleentzako kezkarriak.

2005eko abenduan %7,8koa zen langabezia tasa Hondarribian, EAEmo baino tasa txikiagoa eta Gipuzkoakoa baino zertxobait handiagoa (%8,5 eta %7,5, hurrenez hurren). 2006an erregistratutako langabetuen zenbatekoa (16 eta 64 urte arteko biztanleen ehunekoa) %52,41ekoa da.

Hala ere, langabezia elementu kezkarria da Hondarribian, Hiritarren Pertzepzio Inkestaren esparruan lortutako emaitzetatik ateratako ondorioen arabera, inkesta horretan "lanerako aukerak" eta enpleguaren "kalitatea" baitira hiritarrek okerren baloraturiko alderdiak, etxebizitzak lortzeko aukera eta hiritarrak ukitzen dituzten erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko aukerekin batera.

HONDARRIBIA: INDUSTRI EHUNAREN GARAPEN URRIA ETA UDALERRI ESKULAN EGOZLEA

- Arrantza jardueraren presentzia handia, egoera zailean badago ere.

Hondarribiko ontzidiak 30 ontzi eta 321 arrantzale zituen 2004. urtean, azken urte hauetan ontzien eta arrantzaleen kopuruan murrizte nabarmena sumatzen bada ere (2005 urtean 25 ontzi eta 291 tripulatazailetara jaitsi zen kopuru hori eta 2006an, 26 ontzi eta 284 tripulatazaile zeuden udalerriko arrantza jardueran).

- Industri ehunaren garapen urria.

Hondarribiak 55 industri establezimendu zituen guztira 2004 urtean, eta horietan 187 langile ari ziren lanean. Industria enpresen kopuru txiki hori "papera, argitalpen eta arte grafikoen", "metalurgia eta metalezko produktuen" eta "garraio materialaren" jardueran biltzen da batik bat, eta hiru

jarduera horiek hartzen dute guztizko establezimenduen %55. 2006 urtean 53 establezimendu zeuden Hondarribian, 213 langilerekin. Hau da, 2004an baino establezimendu gutxiago zeuden baina lan gehiago eskeintzen zuten. "Papera, edizioa eta arte grafikoak" jarduerak dute establezimendu-kopuru gehien, eta, ondoren, "garraio-materialak" eta "metalurgia eta metalezko produktuak" jarduerak daude.

- Eraikuntzaren presentzia handia⁵.

Eraikuntzari dagokionean, Hondarribiak 155 establezimendu zituen eraikuntzaren sektorean 2004 urtean, eta 308 lagun ari ziren sektore horretan lanean. Horrek esan nahi du eraikuntza sektorea garrantzitsua dela udalerrian. 2006 urtean 266 pertsoneri lan ematen zioten 169 establezimendu zeuden. Beraz, nahiz eta establezimendu kopurua handitu, eskeinitako lana %13,6 jeitsi da.

- Zerbitzuen sektorearen garapen handiagoa, batik bat turismo eta ostalaritzari loturik.

Hondarribiak guztira 864 establezimendu zituen 2004 urtean zerbitzuen sektorean eta 2.654 lagun ari ziren sektore horretan lanean. "Merkataritza eta konponketa" jarduerak du establezimendu eta enplegu kopuru handiena, guztiaren gainean %29,1 eta %19,3ko ehunekoekin, hurrenez hurren. Aipaturiko jarduera horren ondotik, "Alokairua, etxebizitza agentziak eta enpresentzako zerbitzuak" eta "Ostalaritza" jarduerak datoz, guztizko establezimenduen %20,1 eta %14,5 hartzen baitute.

Udalerriko merkataritza eskaintza txikia dela esan daiteke, udal ekoizpen egituraren merkataritzak garrantzia badu ere. Hala bada, merkataritza dentsitatearen indizea Gipuzkoako Lurraldeko batez bestekoa baino txikiagoa da (70,6). Era berean, Espainiako Urtekari Ekonomikoak, inguruan merkataritza indize txikiena duten udalerrien artean kokatzen du Hondarribia. 2006 urtean merkataritza-dentsitatea 13,73 establezimendu/1.000 biztanlekoa zen.

⁵ Epígrafe honetan sartzten dira obren prestaketa, higiezinaren eraikuntza orokorra eta ingeniariaritza zibileko obrak, eraikin eta obra instalazioak, eraikin eta obren akabera eta eraikuntza edo eraiste ekipoen alokairua langilea barne.

Dena den, udalerriko merkataritza sustatze aldera, Higer elkarteak, Hondarribiko udalak eta Bidasoa bizirik-ek 2007 urtearen amaieran sinatutako akordioarekin hutsune honi aurre egiteko pausoak ematea aurreikusten da.

Jasangarritasunari begira, faktore kezkarri bat mugikortasuna sortzea da, ibilgailuen mugimendu handia sortzen baitu merkataritza irundarraren eta Txingudi Merkataritza Gunearen erakarpen gaitasunak.

- Hondarribia turismo helmuga garrantzitsua.

Hondarribiko udalerraren berezko ezaugarria da turismo jarduera. Udalerriak ospe handia du turismoaren esparruan eta garrantzizko eragileak ditu jarduera horren kudeaketarako. Hala bada, Gipuzkoako eta Euskal Herriko kostaldeko turismo gune garrantzitsuenetakoa bat da Hondarribia, hori garbi dago udako hilabeteetan biztanleria bikoiztu egiten baitu udalerriak. 2006 urtean, Ostalaritza eta zaharberritze establezimenduak 144 ziren. Hauetatik %53,5a tabernak ziren, %41,7a jatetxeak eta %4,9a kafetegiak.

Ildo horretatik, Espainiako Urtekari Ekonomikoak inguruan turismo indize handiena duten udalerrien artean kokatzen du Hondarribia, Gipuzkoan garrantzitsuak diren beste turismo gune garrantzitsuena, Zarautz edo Zumaia, esate baterako, baino askoz ere handiagoa baita indize hori.

- Hondarribia: lotarako hiria.

Jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta, azpimarratu beharreko alderdi bat honako galdera bikoitz honi erantzun ahal izatea da: Non lan egiten du/bizi da Hondarribian bizi den/lan egiten duen jendea? Ildo horretatik, Hondarribian bizi diren 10 langiletatik ia 7k udalerritik kanpo lan egiten dute. Gainera, establezimendu kopuruak, enpleguak eta udalerrian bizi den biztanle okupatuen kopuruak %20 gora egin duen bitartean, udalerrian bertan lan egiten duen biztanle kopuruak %3,6 soilik egin du gora 1996 eta 2001 urteen artean. Horrenbestez, lotarako hiriaren eredua sendotzen ari dela esan daiteke Hondarribian.

Datuak ikusita, esan daiteke, Hondarribian bizi den jendearen %70 inguruk bere udalerritik kanpo lan egiten duela eta Hondarribian sorturiko enpleguaren %30 udalerritik kanpotik etorritako pertsonekin betetzen dela.

EKIPAMENDU HORNIDURA ONARGARRIA, ESKASI BATZUK IZAN ARREN

- Alerta adin txikienetarako egon daitekeen hezkuntza ekipamendu beharraren inguruan.

Hezkuntza eskaintzak unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren etapa guztiak betetzen ditu Hondarribian, Goi Mailako Lanbide Heziketa izan ezik.

Plaza eskaintza hori 2.192 ikaslek betetzen dute gaur egun eta eskaera gero eta handiagoa da haur eta lehen hezkuntzako ziklo txikienetik hasita. Hainbat arrazoi ditu horrek, hazkunde begetatiboa, egoiliarren kopuruaren hazkundera eta inguruko beste udalerrietatik etorritako ikasleen ehuneko handia.

- Eskasiak kultur ekipamenduetan, kultur jardueren eskaintza garrantzitsu/osoan badu ere.

Hondarribian, kiroldegia eta Zuloaga liburutegia kenduta, ez dago ad hoc esparrurik nolabaiteko garrantzia duten kultur ekitaldiak aurrera eramateko. Gaur egun, esparru itxia behar duten ekitaldi gehienak kiroldegian egiten dira. Hainbat iritzi daude kultur ekipamendu berriak sortzeko beharrari dagokionean.

Aitzitik, garrantzitsutzat hartzen da kultur jardueren eskaintza, baina lehen aipatutakoarengatik, udako hilabeteetan biltzen dira ia eskaintza horiek guztiak (aire zabalean), eta baldintza meteorologikoen arabera beti ere.

- Kirol ekipamenduen eskaintza bikaina.

Bizi-kalitatearen ikuspegitik begiratuta, bertan dagoen kirol ekipamendu eskaintza handia da, inolaz ere, Hondarribiko udalerriko gotorlekuetako bat.

Gainera, hainbat ikastarorekin osatzen da ekipamenduen eskaintza, bere modalitate aukera guztietan, kiroldegian bertan. Horri dagokionean, halako saturazio bat ikusten da eskaintzan, jadanik 5.500 baitira Hondarribian bizi diren abonatuak (guztizko biztanleriaren %34), eta horiei beste 700 abonatu erantsi behar zaizkie Irun eta Iparraldetik datozenak.

- Osasun azpiegitura desegokiak

Hondarribian osasun-zentro bakarra dago, eta, bertan, medikuntza orokorraren premia guztiak asetzen dituzte. Egun dagoen osasun ekipamendua ez da nahikoa udalerrian dauden beharrei erantzuteko orduan. Hori dela eta, anbulategia handitzeko oinarritzko proiektua idatzi da. Hala, "Euskal Osasun Sistema Publikoaren Azpiegitura eta Ekipamenduak Modernizatu eta Egokitzeko Plana 2007-2012"ak Hondarribiako Osasun Zentroa hobetzeko inbertsioak aurreikusten ditu.

Bestalde, Bidasoa Ospitalaren instalakuntzak handitzea aurreikusten da (42 ohe berri) baita kontsultara zuzenduta dagoen eremua handitzea eta egokitzea (1.550.000€ eta 630.000€ hurrenez-hurren).

- Gorakada handia gizarte zerbitzuen eskarrietan

2006an, guztira 666 espediente ireki ziren Gizarte Zerbitzuen Departamenduan; beraz, 2004ko datuekin alderatuz, %0,7ko igoera izan zen.

Bestalde, zaharren egoitzetan 34 pertsona sartu zituzten 2006an, zeinetatik 15 gizonezkoak eta 19 emakumezko ziren. Ildo horretatik, EAE osoan gizarte zerbitzuen zentroyen sarean estaldura txikiena duen eskualdea da Bidasoa-Txingudi eskualdea. Eskualde mailan, egoitza plazen eskasia dagoela esan liteke.

Azken urteetan, iraupenerako estalduraren prestazioak murriztu egin dira. Aldiz, 2006an, 123 familia onuradun izan ziren; hau da, 2004ko kopuruekin alderatuz, %32,4ko murrizketa gertatu zen. Dena den, beharrezkotzat jo da gizarte-alokairuarekin lotutako premiei (azken aldian, ugaltzen ari direnak) arreta jartzea.

- Etxebizitza merkatuaren hedadura handia eta bigarren egoitzaren proportzio garrantzitsua.

2007an, 7.840 etxebizitza zeuden guztira Hondarribian; horietatik %75,9 okupatuta zeuden eta gainerako %24,1a hutsik. Eustaten datuen arabera, 2001. urtean, etxebizitzaren %23 bigarren etxebizitzak ziren. Zifra horiek erakusten dute bigarren egoitza okupazioa duen etxebizitza kopuru handia dagoela, batik bat uda partean.

Etxebizitzetan egiten den okupazio mota da beste elementu garrantzitsu bat. Horrela, etxebizitza bakoitzeko bi lagunekoa da batez besteko okupazioa, eta hiru lagun edo gutxiago bizi dira Hondarribian dauden etxebizitza okupatuen %70ean.

Ez da ahanzi behar, azkenik, badirela pertsona eta familia batzuk, hainbat arazoirengatik, laguntzak behar dituztenak, bai laguntza puntualak bai aldian behingoak, baldintza duinetan bizi ahal izateko beren ohiko etxebizitzan. Halatan, Udalak eskainitako Gizarte Larrialdiko guztizko Laguntzetatik, horien zati handi bat etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiltzen da. Horrenbestez, benetan garrantzitsutzat hartzen da etxebizitza sozialerako politika indartsua aurrera eramatea, batik bat alokairuei begira.

- Asoziazionismo eta hiritarren partaidetza maila txikia udal politikan.

Elkarte ugari eta era askotakoak badaude ere, Hiritarren Pertzepzio Inkestaren bidez jasotako erantzunen %60k adierazten dute ez direla inolako elkarteko kide.

Bestalde, Hiritarren Pertzepzio Inkestan, hiriarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko dauden aukerei dagokienean hiritarrek azaldutako asetasun maila, balorazio okerrean duen bigarren alderdia da, "lanerako aukerek" soilik gaintitzen baitute. Galdetutako jendea zenbat eta gazteagoa izan orduan eta okerragoa da balorazio hori. Hala bada, 18 eta 29 urte arteko multzoan, balorazio hori 2koa da 4ren gainean.

1.2 Hondarribiko egoera sozioekonomikoaren inguruko laburpena, jasangarritasunaren ikuspegitik

Biztanleriaren etengabeko hazkundera 40. urteetatik aurrera
<ul style="list-style-type: none">• Inguruko udalerrri gehienek ez bezala, Hondarribiak urtetik urtera biztanle gehiago du 40. urteetatik hasita.• Hala bada, 2001-2004 denboraldian, 40. urteetatik daramanaren antzeko erritmoan hazi da Hondarribia ehunekoetan (+%15 hamarkada bakoitzean). 2007an Hondarribiak 16.364 biztanle zituen. 2001-2007 epealdian biztanleria %8,46 batean hazi da. Honako arrazoi hauengatik batik bat:<ul style="list-style-type: none">▪ Hazkunde begetatibo positiboa.▪ Migrazio saldoa handitzea.
Biztanleriaren zahartze seinaleak
<ul style="list-style-type: none">• Azken 25 urte hauetan, aldiz, %50 gora egin du 65 urtetik gorako biztanleriak eta 19 urtetik beherako biztanleria ia erdira murriztu da, Gipuzkoa eta EAE osoan joera orokorra horixe izanik.
Okupazioa vs langabezia
<ul style="list-style-type: none">• 1991 eta 2001 artean udalerrian bizi den biztanleria okupatuak %32,4 gora egin du, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan izandakoa baino askoz ere handiagoa da gorakada hori (%24,1).• Langabezia tasari dagokionean, 2005eko abenduan %7,8koa zen tasa hori, EAEan izandakoa baino txikiagoa eta Gipuzkoan izandakoa baino zertxobait handiagoa (%8,5 eta %7,5, hurrenez hurren).• Hondarribiko langabetuaren profila 45-54 urte arteko emakumea da, bigarren hezkuntzako 1. etaparen arabera prestakuntza mailarekin, zerbitzuetan aritu dena eta langile ez kualifikatuen profesional taldean dagoena.
Zerbitzuak, udalerriko ekonomia jarduera nagusia
<ul style="list-style-type: none">• Zerbitzuak dira udal ekonomia jardueran presentzia handiena duen jarduera, bertan bizi diren biztanle okupatuak %66,3

zerbitzuetan ari baitira lanean, gero %6,1 eraikuntzan, eta azkenik %7 lehen sektorean.

- Nekazaritza eta abere hazkuntza sektorea moteltzen ari da pixkanaka-pixkanaka eta hondar jarduera izateko joera hartzen ari da: arian-arian murrizten ari da profesional kopurua eta bitariko langileek garaturiko jarduera bilakatzen ari da, nekazaritza lana industria edo zerbitzuetako lanarekin batera egiten baitute.
- Arrantza jarduera garrantzitsua da Hondarribiko udalerrian, bai okupazio aldetik bai jarduera aldetik. Hala bada, lehen sektorean lanean ari diren biztanleen %7tik, arrantza jardueran ari dira %5,6.
- Industria metalurgian oinarritzen da batik bat, udalerrian presentzia txikia badu ere.
- Hondarribian zerbitzuetan lanean ari den jendea 4 puntura dago EAEkoaren gainetik, eta merkataritza eta konponketa, hezkuntza eta logistika eta garraioarekin loturiko jarduerak dira udal ekonomiaren barnean paper garrantzitsua jokatzen dutenak.

Merkataritza sektorea, dinamismo txikia?

- Merkataritza dentsitatearen indizeak adierazten du Hondarribiak 54 establezimendu zituela 2004an 1.000 biztanleko, eta Gipuzkoako Lurraldeko batez bestekoa (70,6) baino askoz ere txikiagoa da kopuru hori. 2006 urtean, merkataritza-dentsitatea 13,73 establezimendu/1.000 biztanleko zen.
- Aurrera doaz hiri inguruko merkataritza azalera handiak, eta horrek mugikortasuna areagotzen du aisia-erosketa eta abarrekin loturiko arazoengatik.

Hondarribia turismo eta aisiarako erreferente gisa

- Ostatu azpiegitura handia.
- Paisaia eta hirigintza kalitate handia dute Hondarribiko lurraldeak eta hiriguneak, eta gainera, azpiegitura bikaina eskaintzen du turismoarekin eta aisiarekin loturiko erabileretarako.
- Inguruan turismo indize handienetakoa duen udalerrria da Hondarribia.

Non lan egiten du/bizi da Hondarribian bizi den/lan egiten duen jendeak?

- Hondarribian bizi diren 10 langiletatik ia 7k udalerritik kanpo lan egiten dute.
- Establezimendu kopuruak, enpleguak eta udalerrian bizi den biztanle okupatuak kopuruak %20 gora egin duen bitartean, udalerrian bertan lan egiten duen biztanle kopuruak %3,6 soilik egin du gora 1996 eta 2001 urteen artean. Horrenbestez, lotarako hiriaren eredia sendotzen ari dela esan daiteke Hondarribian.
- Era berean, Hondarribian sorturiko enpleguaren %30 udalerritik kanpotik etorritako pertsonekin betetzen da.

Argilunak ekipamenduen horniduran

- Alerta adin txikienetarako egon daitekeen hezkuntza ekipamendu behararen inguruan.
- Eskasiak kultur ekipamenduetan, kultur jardueren eskaintza garrantzitsu/oso bada ere.
- Kirol ekipamenduen eskaintza bikaina.
- Egun dagoen osasun ekipamendua ez da nahikoa udalerrian dauden beharrei erantzuteko orduan. Hori dela eta, anbulategiaren eraikina handitzeko oinarritzko proiektua idatzi da. "Euskal Osasun Sistema Publikoaren Azpiegitura eta Ekipamenduak Modernizatu eta Egokitzeko Plana 2007-2012"ak Hondarribiako Osasun Zentroa hobetzeko inbertsioak aurreikusten ditu.
- Gorakada handia gizarte zerbitzuen eskarrietan eta adineko pertsonentzako egoitza plaza eskasia eskualde mailan.
- Etxebizitza merkatuaren hedadura handia eta bigarren egoitzaren proportzio garrantzitsua.

Asoziazionismo maila txikia eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera txikiak

- Elkarte ugari eta era askotakoak badaude ere, Hiritarren Pertzepzio Inkestaren bidez jasotako erantzunen %60k adierazten dute ez direla inolako elkarteko kide.
- Bestalde, Hiritarren Pertzepzio Inkestan, hiriarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko dauden aukerei dagokienean hiritarrek azaldutako asetasun maila, balorazio okerrena duen bigarren alderdia da, "lanerako aukerak" soilik gainditzen baitute. Galdetutako jendea zenbat eta gazteagoa izan orduan eta okerragoa da balorazio hori. Hala bada,

18 eta 29 urte arteko multzoan, balorazio hori 2koa da 4ren gainean.

2. LURRALDE ANTOLAKUNTZA: LABURPENA

2. LURRALDE ANTOLAKUNTZA. LABURPENA

2.1 Hondarribiko lurralde antolakuntzaren inguruko gogoetak, jasangarritasunaren ikuspegitik

HIRI EREDUAREN BILAKAERA HONDARRIBIAN

- *Hiri hedapena XIX. mendearen bigarren erdialdetik hasita, sarbideak hobetu eta aisia eta udaldirako eremu gisa espezializatu izanagatik, horrexek zehaztu baitu udalerrriaren geroko garapena.*

Hondarribiaren hiri garapena aldaketa handirik gabe mantendu da jatorrizko guneari dagokionean XIX. mendearen bigarren erdialdean aurrera egin arte, eta gaur egun dauden azpiegituren elementu handien (A-8 eta aireportua izan ezik, horiek XX. mendean eraiki baitziren) eraikuntza izan da aldaketaren eragile nagusia. Garai horretan erlazio sozioekonomikoen sistema berria eratu zen Bidasoa Beherean, eta estatu irismeneko udaldirako eremu eta Irunerako lasaialdi eta aisialdirako esparru izatera pasa zen Hondarribia, bere arrantza jarduera mantendurik.

Hirigintza eraldaketa oso nabarmena zen jadanik 1900. urtean, aurrerapen handia egin baitzen paduren idortzean. Portuan zabalgunea sumatzen zen jadanik betegarriekin, eta udatiarrentzako eraikinak eraiki ziren. 5.400 biztanle zituen 1914an, jada sendotuak zeuden egungo hirigunearen erdiko eremuko oinarrizko trazatuak, eta Portura eraman zuten hiri erdigunea, Alde Zaharrean geraturik eraikin publiko adierazgarrienak.

- *1915-1955 denboraldian moteldu egin zen hazkundera. Sustapen publikoaren lehen ekimenak etxebizitza lortzeko*

Halaz ere, 1915-1955 denboraldian nolabaiteko geldialdia izan zuen hiri garapenak, 8.000 laguneko biztanleriarekin 1955. urtean. Garai hartan, nabarmenduko genuke, egungo Sabino Arana ireki zela eta "Errepide Berria" deiturikoa egin zela (1933) Amuteraino. Era berean, aipatzekoak dira, estuarioan egin ziren esku hartzeak Babes Portu aldera. Egoitza eremu berri gutxi batzuk garatu ziren denboraldiaren amaieran, eragin madrildarreko eraikuntza diseinuarekin, eta ordain gisa, Arrantzaleen Herrigunearen eraikuntzarekin hasi ziren bertako biztanleentzako etxebizitza sustapenak. Garai hartan jada nabari ziren etxebizitza lortzeko zailtasunak espezializazio

sozioekonomikoaren ondorio zuzen gisa, alderdi horrek hiri garapena baldintzatu baitzuen jada XIX. mendetik aurrera.

- ***1956tik aurrera gertatu zen hirigintza eraldatze handia, oso plangintza tresna hedakorrak onartu ziren, baina ez ziren bat ere eraginkorrek antolakuntzarako.***

1956. urtetik aurrera nabaritu zen Hondarribiaren hirigintza eraldatze handia, eta joera hori bera indartu zen Estatuan ere nazioarteko isolamenduaren amaieragatik eta Zoruaren Legea onartzeagatik. Hainbat plangintza tresna prestatu ziren garai honetan, eta horiek zehaztu zituzten aurrera eramaniko aldaketa handien esparrua eta irizpideak.

1960. urtean bazegoen jada lehen plangintza proiektua Hondarribian, eta haren babesean (baina plangintza neurri handi batean errespetatu gabe) halako esku hartze batzuk egin ziren, hiri garapenean garrantzi handia izan dutenak, hain zuzen ere (Amute, Alde Zaharra, Azken Portu eta Soroaldeko plan partzialak). Bigarren fase batean (1967-69) onartu ziren Iterlimen, Butron Pasealekua eta Damarrin kokaturiko poligonoetarako planak.

1972ko Plan Orokor berriak esku hartze horiek jaso zituen, eta ekonomia egoera hedakorra islatu zuen. Haren arabera, udalerrirako irisgarritasuna nabarmen hobetu zen Jaitzubiako errepidearen eraikuntzarekin. 7.000tik gora etxebizitza berri planifikatu ziren (zeudenekin 11.000), gehienak ekonomia maila handiko merkatu baterako eta dentsitate ertain eta txikiko tipologiarekin, paisaia kalitate bikaineko lurralde batean kokatuak. XIX. mendearen erdialdeaz geroztik mantendutako hiri garapen eredu bultzatu zuen planak, udaldirako herri txiki bat eraldatzeko filosofiarekin, Donostia-Metropoli Eremuaren mailan estandar handiko egoitza zentro handi baten baitan funtzionalki. Loturarik gabeko ezarpen batzuetara mugatzen zen industria. Bestalde, ia ez zegoen ekipamendu komunitariorik eta espazio librerik, ezarpenen dentsitate txikiak eskasi hori zehazten badu ere.

Honako jarduera garrantzitsu hauetan islatzen da 1956- 1995 denboraldian aurrera eramaniko hiri eraldakuntza:

- Babes porturako errepidea, itsasadarraren kanalizazioa, hondartzaren eraketa eta atzeko aldeko betegarriak.
- Aireportuaren eraikuntza (1955 eta 1961) Amute eta hirigunearen arteko errepide berriarekin.

- N-1 errepidetik sarbide berria Jaitzubian barrena (1963), gero Iparraldeko Saihesbidea eraiki ondoren N-1 errepidean sartu zena.
- Eraikuntza esku hartze berriak hirurogeigarren urteetan: Josu Langile eta Planeta multzoak; esku hartzeak Soroalde, Guadalupe eta Cerveralesen bertako biztanleei zuzenduak, eta udaldirako apartamentu blokeak (Bizkundi, Goxoki, Ondarregi), Puntaleko Zabalgunea eta industri pabilioiak finkatzea.
- 1977tik 1995era aurrera eramaniko egoitza esku hartzeak: Jaizkibel Urbanizazioa, esku hartzeak Mendelu, Zumardia, Alde Zaharra, Herribertan, Faroko Errepide, Iterlimen-Lurgorri eta Soroaldean.
- Babes Portuko espigoia eta amarratzeko Kai Berria.

Lurraldearen egituratze eta okupazioan izandako garrantziagatik, estuarioan egindako aldaketak eta egoitza esku hartze batzuk nabarmendu behar dira, Soroaldekoak eta landa eremuan eginikoak, esate baterako.

Hiri zoruaren estuario eta itsas bazterreko uretako egituraketari dagokionean, kosta lerroaren erabateko eraldakuntza osatu zuten bertan aurrera eramaniko jarduerak, lehenagoko garaietan eginiko padura idortze lanei jarraipena emanez.

Egoitza garapenean Soroaldeko eraikuntza nabarmendu behar da haren tamainarengatik (56 ha-ko hedadura eta 2.000 etxebizitza baimendu) eta kudeatzeko moduagatik, gero hiri arazoak ekarri baititu Hondarribirako eta bertako mugikortasunerako. Ez ziren zehaztutako kudeaketa mekanismoak aplikatu eta ez ziren urbanizazio eta zoru zesio obligazioak bete, eta horren ondorioz, loturarik gabeko hiri tipologia eta trazatua eratu zen. 1960ko eta 1972ko plangintzen eraginkortasun txikiak, ekimen pribatuaren eskuetan geratu zen garapen errealekin, indarrean zeuden arau subsidiarioek berek onartzen zuten bezala, arazoak ekarri ditu Hondarribiko egungo hiri egituraketa aurrera eramateko. Ildo horretatik, dentsitate txikiek, sustatzaileentzako muga batzuk zehaztean, murriztu egin dute, neurri handi batean, kaotikoa izan zitekeen emaitza.

Landa inguruan, Jaizkibel Urbanizazioaren garapena eta etxebizitza familiabakarren kopuru aski handiak, batik bat Arkolla eta Jaitzubian, garrantzitsuak izan dira halaber Hondarribiak ezaugarri duen garapen sakabanatu eta dentsitate txikikoaren ereduaren.

- ***Indarrean dauden Arau Subsidiarioen diagnostikoa (1995): egoitza espezializazioa, espekulazio merkatua eta baliabide gutxiko bertako biztanleek udalerria uztea***

1995eko egoera, egungo arau subsidiarioetan jasotako diagnostikoaren arabera, oro har, egungo egoerari aplikatu dakiokeela dirudi.

Espezializazio funtzional nabarmena du Hondarribiak, dituen lurralde eta hirigintza ezaugarri berezien ondorioz, eta bertan benetan garrantzitsuak dira turismo eta aisialdirako zerbitzuak, arrantzez gainera. Egoitza espezializazioak arazoa sortzen du etxebizitza lortzeko orduan, Eskualdean eta Metropoli Eremuan baliabide ertain eta handiak dituzten biztanleei zuzendua baitago eskaintza batik bat. 70. urteetatik aurrera larriagotu egin da egoera, bertako biztanleen lekua hartu dutelako Euskal Herritik kanpoko bigarren egoitza duten biztanleek. Halatan, arau subsidiarioek guztiz espekulatio gisa kalifikatzen dute eraturiko merkatua.

Prozesu horren ondorioz, baliabide txikiko biztanle kopuru handiak udalerria utzi eta Irunera eta inguruko beste udalerriri batzuetara joan dira etxebizitza eta enplegu bila. Garraio publikoen eraginkortasun ezak eta udalerria aski bazterrean kokatzeak oso zail egiten dute udalerrian bizi eta lan egiteko aukera elkartzea. Aurrera eramandako eraikuntza jarduerak garrantzitsuak bada ere, neurri handi batean kanpoko jendeak okupatu ditu eraikitako etxebizitzak, Arau Subsidiarioen diagnostikoak adierazten duenaren arabera.

Industria jarduerari dagokienean, bertako industria txikiaren eta merkataritza zerbitzuen lekualdatze eta ezarpenei erantzutea izan dira planteamenduak.

HIRI ZORUAREN ERABILERA

- ***Egoitza zorua da erabilera nagusia, eta dentsitate txikiko tipologiak dira nagusi, jatorrizko herrigunean ez bezala***

Zabala da Hondarribiko hiri eremua, Arau Subsidiarioetan zehaztutakoaren arabera, 551,6 Ha okupatzen ditu, hauexek dira, udal barrutiaren %17,9. Egoitza erabilera hartzen du zatirik handiena, 373,4 Ha (%12,1). Lurraldeko egoitza okupazioaren ezaugarri nagusia dentsitate txikia da, jatorrizko herrigunean eta lehen zabalguneeetan ez bezala.

- Hala bada, 223,4 Ha eraikuntza bakanak dituzten eremuak dira, eta arauak aplikatu ondoren aurreikusitako 407 etxebizitzekin hiri zoruaren %59,5 hartzen dute horiek. Sorturiko dentsitatea 1,7 etxebizitza dira hektarea bakoitzeko. Gainera, kontuan hartu behar dira zoru urbanizaezinean sakabanaturik dauden beste 330 etxebizitza.
- Beste 66,4 Ha, Garapen Txikiko eremuak dira (66,4 Ha), azaleraren %17,9 eta etxebizitzen %19,2 hartzen dute horiek, eta hektarea bakoitzeko 21 etxebizitza da batez besteko dentsitatea.
- 63,7 Ha hartzen ditu Eraikuntza Irekia deiturikoak (hiri zoruaren %17,1), udalerriko etxebizitzen zati handiena hartzen du honek (%46,5), batez beste 57,3 etxebizitzako dentsitatearekin hektarea bakoitzeko.
- Askoz ere azalera txikiagoak hartzen dituzte Egoitza Eremu Zaharrek (13,7 Ha) eta Zabalgunek (6,1 Ha), hiri zoruaren %5,4 hartzen baitute. Aldiz, eremu horietan daude etxebizitzen %29,2, hektarea bakoitzeko dentsitateak 83,9 eta 168,6 baitira, hurrenez hurren.

Zifrak pilatuta, ikusten da, aipaturiko hiru azken tipologia horiek hartzen dutela udalerriko etxebizitzen %75,6, hiri zoruaren %22,4rekin.

1. Koadroa. Azalera eta etxebizitzak tipologiaren arabera

TIPOLOGIA	Azalera (Ha)	Azalera %etan	Etxebizitzak	Etxebizitzak %etan	Etxebizitzak/Ha
Egoitza Eremu Zaharrak	13,7	3,7	1.219	15,5	83,9
Zabalgunea	6,4	1,7	1.073	13,7	168,6
Eraikuntza Irekia	63,7	17,1	3.653	46,5	57,3
Garapen Txikiko Eraikuntza	66,7	17,9	1.508	19,2	21,0
Eraikuntza Bakana	222,3	59,5	407	5,2	1,7
GUZTIRA	373,3	100,0	7.860	100,0	21,1

Iturria: Hondarribiko Plangintza Arau Subsidiarioak, 1995. Arauen indarraldiaren amaierarako aurreikusitako kopuruak.

Jasangarritasunaren gidaliburuetan hektareako 75 etxebizitza zehazten da erreferente positibo gisa (adierazle hori orientagarri hutsa bada ere, kasu bakoitzean faktore ugari kontuan hartu behar direlako), Hondarribian 21,1ekoa da, eta kopuru hori 49,7ra igotzen da Eraikuntza Bakaneko eremuak kanpoan uzten badira. Erreferentzia gisa adierazitako hori baino dentsitate handiagoak badaude, saturazioa dago eta txikiagoak badira, berriz, erabilera

estentsiboa dela eta zoru kontsumo handiegia dagoela esan nahi du. Kasu horretan, zerbitzuen kostua handitu egiten da eta garraio publikoak erabiltzeko zailtasunak sortzen dira erabiltzaileen dentsitate txikiagatik.

- ***Indarrean dagoen plangintza dela eta diagnostikotik sorturiko helburuak: lurraldearen gaitasunaren eta bertako biztanleen beharren mende egotea garapena. Hazkundera mugatzea.***

1997. urtean onarturiko Arau Subsidiarioek, lurraldearen gaitasun objektiboaren eta bertako biztanleen beharren arabera egoitza garapena izan dute helburu, turismo jardueraren hazkunde selektiboagoarekin, lurraldearen balioekiko errespetu handiagoarekin eta funtzionalki orekatuagoa. Halaz ere, hazkunde handia jaso dute, hau da, 2.197 etxebizitza 8 urtetan, etxebizitza kopurua 8.150era igota, 16.500 laguneko biztanleria aurreikuspenarekin eta 30.000 biztanlera igorik uda partean.

- Hiri garapena aipatutako gaitasun horretara mugatzeko erabakia, baita oso epe luzera ere, alde aurreko aukera politiko gisa hartzen den kontua, garapen horrek Hondarribiko biztanleriaren hazkunde begetatibo beharrei erantzuteko, ekologia eta paisaia mailan balio handia duten eremuak urbanizatzeko prozesutik babesteko eta hirigunearen neurri gabeko hazkundera baztertzeko aukera ematen duela argudiatuz .
- Salbuespenen bat kenduta, zegoen hirigunera eta haren inguru hurbilera mugatzen zen hiri garapena. Udalaren esku hartzea zoruaren merkatuan, dauden zoru erreserbak agortuko ez dituen eraikuntza erritmoa lortzeko, aurreko plangintzan aurreikusitako egoitza erabilerako lurren zati bati kalifikazioa kenduta, eta etxebizitza bakanek landa eremuan neurrigabeko erasorik eragin gabe.
- Udal zoru politika garatzea bertako biztanleei etxebizitzak prezio onean ziurtatu ahal izateko, 80. urteetatik aurrera gertatzen ari den kanpora bidaltze prozesuari eutsi ahal izateko.

- **Plangintzaren esku hartze proposamenak: tarteko dentsitateak areagotzea, dentsitate txikiak ere emendatzen diren arren.**

Irizpide on batekin, Arau Subsidiarioen proposamenek Eraikuntza Irekiko etxebizitzaren partaidetza handitzea izan dute helburu, eremu horretan sartu baitira aurreikusitako etxebizitza berri gehienak (%49,6), dentsitate ertaineko eremuan barnean. Era honetan, %33,0tik %46,5era pasatzen ziren tipologia horretako etxebizitzak. Horretarako, udal ekimen publikoko edo bitariko esku hartzeak zehazten dira, eta 838 etxebizitza publiko eta 239 etxebizitza libre aurreikusten dira. Esku hartze eremuen dentsitateak, etxebizitza berriak kontuan harturik, hektarea bakoitzeko 50-80 etxebizitzako tasetan zehazten dira eremu gehienetan.

2. Koadroa. INDARREAN DAUDEN ARAUETAN PROPOSATURIKO ETXEBIZITZA TIPOLOGIAK

TIPOLOGIA	ETXEB. % AR. SB. AURRETIK.	ETXEB. % AR. SB. ONDOREN.	AR. SB. PROPOSATURIKO ETXEB. %
Egoitza Eremu Zaharrak	18,8	15,5	6,7
Zabalgunea	12,5	13,7	4,2
Eraikuntza Irekia	33,0	46,5	49,6
Garapen Txikiko Eraikuntza	16,0	19,2	27,6
Eraikuntza Bakana	2,7	5,2	11,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0

Iturria: Hondarribiko Plangintza Arau Subsidiarioak, 1995.

Halaz ere, Hondarribian, etxebizitzaren tipologia gertaturiko aldaketa honekin batera, ez hain muturreko dentsitateak eta sustapen publikoak edo bitarikoak lortu ahal izateko, dentsitate txikien politika mantendu da halaber. Izan ere, Arau Subsidiarioetan proposaturiko etxebizitza berrien ia %40 Eraikuntza Bakanei (%11,9) eta Garapen Txikiko Eraikuntzei (%27,6) dagozkie, 864 etxebizitza guztira. Modu honetan, era horretako etxebizitzek garrantzia hartzen dute tokiko etxebizitza multzoan.

Hitzarmenen bidez zorua edo haren diru baliokidea lortzea dela dirudi kanpo eskariari erantzuteko etxebizitzaren aldeko plangintzaren helburua, baina metodo horrek epe laburrean etxebizitza publikoen sustapena bideratzeko diru-sarrerak eskuratzeko aukera ematen badu ere, eragin negatiboa du

zoruaren kontsumoan eta udal ekonomian epe luzera, zerbitzu publikoen kostuak handitzen direlako.

- ***Egiazko garapena: 1.267 etxebizitza gehiago 1996tik 2004ra, %30 inguru sustapen publikokoak***

Etxebizitza kopuruaren datuek erakusten dute 1.267 etxebizitzako hazkundera izan dela 1996. urte amaieraren eta 2004. urte amaieraren artean. Horien artean, kalkulatu da, %30 inguru etxebizitza babestuak direla eta gainerakoak libreak. Etxebizitza-parkearen bilakaera 2007 urterarte goranzkoa izan den arren, badirudi hazkunderaren joera egonkortzea dala.

Ekimen publiko edo mistoko etxebizitzetarako dagokienean, 1997. urtean Arauak onartu zirenetik 2005. urtera arte 358 etxebizitza publiko eraiki dira (kontuan harturiko 838 etxebizitzetatik), Komentuaurre, Lonja eta Zezen plazan, eta beste 145 eraikitzeko plangintza aurreratua dago (Damarri eta Presa). Promozio horietako etxebizitza libreak 68 dira, eta 249 daude aurreikusita. Oraindik ez da garatu etxebizitza kopuru handiagoko sustapena (Muliarte, 230 etxebizitza publiko eta 111 pribatu), baina aurrera doa proiektua.

Soilik pribatuak diren esku hartzei dagokienean, guztira 633 etxebizitza berri jasotzen zituzten esku hartze nagusiak erreferentziatzat hartuta, 331 inguru eraiki dira. Garapen txikiko eremuetan daude gehienak (193 etxebizitza Arroka, Labreder, Errekabea). Eraikuntza Bakanean (50 Jaizkibel Urbanizazioan), Eraikuntza Irekian (38 Iturriberrin) eta Egoitza Eremu Zaharretan (50 Alde Zaharrean) ere egin dira esku hartzeak.

ETXEBIZITZA MULTZOA ETA LURRALDEAN DUEN ERAGINA

- ***Etxebizitza kopuruak gora egin du, baina beherakada handia izan du etxebizitza bakoitzeko okupazio tasak***

Biztanleriaren eta etxebizitza kopuruaren hazkundera alderatzen baditugu, ikusiko dugu, 1996 eta 2004 urte artean biztanleriak %10,4ko hazkundera izan duela (1.502 biztanle), eta etxebizitza kopuruak, berriz, ia bikoiztu egin du hazkundera hori (+%19,6, 1.267 etxebizitza). Kontuan izanik bigarren egoitza zuten jabeetako asko Hondarribira etorri direla etxebizitza nagusi gisa, oso nabarmena da etxebizitza multzoaren hedapena.

Hala bada, 2004. urte amaieran Hondarribiak 7.736 etxebizitza bazituen (horietatik %25,6 hutsik daude), okupazio tasa 2,06 lagunekoa da etxebizitza bakoitzeko, eta hori 2,77ra igotzen da etxebizitza hutsak kentzen baditugu.

Parametro hori jaitsiera handia jasaten ari da, oro har, Gipuzkoa eta EAE osoan. Familiaren egituraketan gertatzen ari diren aldaketek areagotu egin dituzte etxebizitza beharrak biztanle kopuruan gorakadarik izan gabe. Hondarribiaren kasuan, etxebizitza hutsen eraginarekin, are txikiagoa da etxebizitzaren aprobetxamendua.

Donostialdea-Bidasoa Behereako Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinak islatu bezala, joera da etxebizitza bakoitzeko 1,81 lagunera iristea (Hondarribiko etxebizitza multzoan) 2018. urterako. Adierazle hori 2,60ra igotzen da soilik etxebizitza nagusiak kontuan hartzen badira.

Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinak zehazten du 2018. urterako 9.138 etxebizitza beharko direla Hondarribian, 16.585 laguneko biztanleria aurreikuspenarekin. Era honetan, aurreikusten da 1.402 etxebizitza gehiago izango direla 2004. urtean zeudenen gainetik, okupazio tasaren jaitsiera izanik hazkunde faktore nagusia.

- ***Egoitza zoruaren kontsumo faktoreen jokaeraren ondorioz baliabideak agor daitezke 2018. urterako, biztanleria hazkunde maila txikietan mantenduko bada ere***

Hazkundeak lurraldean izango duen eraginari dagokionean, ondoko faktore hauek elkartzean bat-batean gora egiten du zoruaren kontsumoak, biztanleria kopuru egonkorak bere horretan jarraitu edo zertxobait gora egiten badu ere:

- Dentsitate txikia
- Bigarren egoitza diren etxebizitzaren eta etxebizitza hutsen pisua
- Etxebizitzaren okupazio tasa murriztea

Kontuan izanik azken faktore horren gainean eragitea oso zaila dela, beste bi faktoreetan esku hartu beharko da zoruaren kontsumoa murriztu dadin.

Bigarren egoitza diren etxebizitza eta etxebizitza hutsei dagokienean, Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinean jasotako ikuspegiak adierazten dute etxebizitza kopuruak 535 etxebizitzako hazkundeak izango duela 2018. urtean

2002. urtean zeudenen gainetik (2.204tik 2.759ra pasatzen da), eta are handiagoa izango da dentsitate txikiko etxebizitzaren sustapena.

- Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinak, dentsitate txikiko lau egoitza garapen eremu handi bereizten ditu Hondarribian (< 20 etxebizitza hektareako), 210 Ha inguru dira guztira eta eremu zabalak hartzen dituzte soroaldean. 20 Ha-ko dentsitate ertaineko eremua zehazten du halaber (20-60 etxebizitza hektarea bakoitzeko).
- Udal plangintza berrian Enpresa Multzoa murriztea aztertzen da (38,8 Ha), zati nagusia hainbat tipologiako egoitza eremuetarako erabiliz.

Erreferentzia gisa, eta espektatiba horiek betetzen badira, eta beste esku hartze batzuk kontuan hartu gabe, gaur egun diren 373 Ha horietatik 600dik gora izatera pasako litzake 2018. urtean, eta horrenbestez, udal barrutiaren azaleraren ia %20 hartzera helduko litzateke. Lurraldeko egoitza hedapen honek kontrastatzen du aurreikusitako 630 laguneko biztanleria hazkundearekin, hauex da, %4 baino gutxiago egungoei dagokienean.

Bilakaera honen elementu negatibo gisa eta jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta, ingurumen, paisaia eta zoruaren kontsumo alderdiez gainera, udalerrirako epe luzerako sorturiko kostuak (zerbitzuak), mugikortasun sistemaren eraginkortasun eza, eraginkortasuna, eta udalerraren etorkizuneko garapen espektatibak amaitzea nabarmendu beharko lirateke, espazio natural babestuak eta Jaitzubiako behe-ibarren bat kenduta, 2018. urtean ia *argazki-finkoa* gorpuztuko litzateke Hondarribirako egoitza espazio gisa.

BERDEGUNE HORNIDURA ETA ESTANDARREN BETETZE MAILA

- ***Inguruaren kalitateak eta etxebizitza dentsitate txikiek arindu egiten dute hornidura estandarren ez betetzea***

Dagoen lurraldearen paisaia kalitate handiak, itsasertzean eta soroaldean espazioak izateak eta eraikuntza dentsitate txikiak, eremu hutsetan orban berdeekin, bertan bizitzeko udalerrri atsegin bilakatzen dute Hondarribia.

Higiezin merkatuak berak berresten du hori. Halaz ere, bi kontraesan jasotzen ditu irudi horrek:

- Berdeguneen erabilera jabeen erabilerara mugatzen da askotan: Urbanizazioen garapenak, gunean edo eraikuntza bakanean espazioak ikusteko aukera ematen du soilik, haietan ezin baita sartu. Ildo horretatik, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aurreikusitako garapenek hornidura berdegune irekiak planteatzen dituzte, horiek gutxiengoa baitira dauden espazioei dagokienean.
- Zoruaren Legeak gutxieneko hornidura batzuk jasotzen ditu, baina Hondarribian horiek ez dira, inolaz ere, betetzen. Horri dagokionean, 1972ko Plan Orokorrak 0,1 m²/biztanleko hornidura jasotzen zuen, Legean berdegune sistema orokorretarako zehazten diren 5 m²-en aurrean. Indarrean dauden Arau Subsidiarioek Higer/San Telmoko multzoa aurreikusten zuten desfase hori gainditzeko, 165.860 m²-koa hura, baina oraindik ez da egituratu. Hiriko espazio libreei dagokienean, Arau Subsidiarioek jasotzen zuten helburua zen 20 m²/biztanleko, eta 71.725 m²-ko hazkundera aurreikusten zen 1995. urtean zeuden 184.435 m²-en gainetik, helburu hori %85ean bete da 2005. urtean.

EKONOMIA JARDUERETARAKO ZORUA

- ***Toki irismeneko industri zorua eta enpresa multzoa, indarrean dagoen plangintzaren helburuak***

Udalerrriaren espezializazio ekonomikoaren barnean industria jarduera urri ezarri dira, eta Irungo udalerritik oso gertu daude horiek. Garapen garrantzitsu bakarra Eskapatxulokoa (3,5 Ha) izan da, baina bestalde, gehiegizko okupazioa eta eraikuntza kalitate txikia ditu poligono horrek, aurrez plan partziala egin gabe itxuratu izanagatik. 1972ko Plan Orokorrean kalifikaturiko industri zoruaren beste proposamen batzuek (35,2 Ha) ez zuten emaitza onik eman, egiazko beharrekin bat ez zetozelako, une hartan arrantza sektorearekiko laguntzak ematea eta hirigunean zeuden enpresei kokaleku berria bilatzea baitzen lehentasunezkoa.

Horregatik, indarrean dauden Arau Subsidiarioek kontsideratzen dute bigarren mailako industria sektorea soilik egotea (tailer txikiak eta industria zerbitzuak Irungo mugan dauden eremuetan eta arrantza sektorerako zerbitzu tailerrak eta hirigunea), ez dela negatibotzat hartu behar metropoli esparruko lan

merkatu batean, horrek Hondarribiari aukera eman baitio ingurumen eta paisaia kalitatea babesteko eta turismo zerbitzuak garatzeko.

Diagnostiko hori kontuan harturik, sendotu egingo da garapen hasi berria Gaintxurizketan, zifra handietan geratzen ez bada ere (30.235 m² Zaldunborda II eremuan) eta Molla eta Itzaberri bezalako eremuetan, itsasoarekin loturiko erabileretan edo dauden etxebizitzien erabilera osagarrietan. Ekimen nagusi gisa Txiplao planteatzen da, 18.626 m²-ko azalera gordinarekin, bertan enpresa txikiak jartzeko eta hirigunekoak birkokatzeke, guztira 32.817 m²-ko garapen berria eremu multzo osoan.

Toki orientazio honi erantzuteaz gainera, Arau Subsidiarioek 38,8 hektarea kalifikatzen dituzte Zubietako Enpresa Multzorako. Kotsideratzen da eremu hori hirugarren sektore mistoak eta teknologia maila handiko industria arinak okupatu behar dutela, esparru horretan industria garapen konbentzionalik ezarri gabe.

- ***Helburuen egungo planteamendua, batik bat zoruan jarduera konbentzionalen ezarpena sustatuz eta Jaizkibelgo Korridore Intermodalean oinarrituta, udalerrria korridore horretan baitago 2005. urteaz geroztik.***

Badirudi, ekonomia jardueretarako zorua garatzeko irizpide horiek aldatu egin direla azken urteetan. Zubietako garapenarekin loturiko zailtasunek eta Jaizkibelgo Korridore Intermodalaren eraketak, Zaldunborda-Zokueta eremuan (Gaintxurizketa) industria konbentzionalak osaturiko eremuaren sorrera Jarduera Plan Integralaren barnean sartzeko eskaera egitera bultzatu dutela Hondarribiko Udala. Bestalde, Enpresa Multzorako eremuaren hedadura murriztea planteatzen da Zubietan, %50 inguru murriztu ere, gainerako zorua egoitza gisa kalifikatuz. Proiektu hori ere arestian aipaturiko plan horretan sartzeko eskaera egin da.

- ***Bertako merkataritza sektorearen egitura txikia, ekipamendu handien eta horiek osatzen duten ereduaren eragina jasaten duena.***

Txikia da Hondarribiko merkataritza hornidura, eguneroko salerosketetarako establezimenduak eta komertzio espezializatu batzuk besterik ez baitago. Honako eremu hauetan soilik daude establezimendu batzuk: San Pedro kalean eta aldamenekoetan (era berean, eremu hori erdigunea da ostalaritza eta hiri jarduerarako), Zumardia-Damarri eremuan, Eroski supermerkatuaren

inguruetan, Sokoan, Dia supermerkatua Soroetan eta Zezen Plazako eremuan (BM supermerkatua dagoen lekuan).

Irunek eragiten duen merkataritza lehia handiak, eta batik bat, merkataritza ekipamendu handien hedapenak, zailtasunak sortzen ditu herrian merkataritza nahikoa izateko. Lurraldean ezarri diren merkataritza ekipamendu handien hedapenaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolakuntza Sailak ekipamendu horien plangintza, jarraipena eta kontrola egin behar izan du. Jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta, merkataritza ekipamenduen garapenak, gehienetan hiri inguruetan eta inportaturiko eredu gisa, ondorio nabarmenak ditu hiriaren jokabidean. Honako hauek, besteak beste:

- Hiri inguruko zoruan azalera handiak okupatzen dituzte, eta horrek lurraldea egituratu beharra ekartzen du bide sistema osagarriak agertzen direlako.
- Ibilgailuetan joan-etorriak egiteko beharrak areagotzen dituzte.
- Azalera handien hedapen ekonomikoaren ondorioz, hiriguneko merkataritza establezimenduak, hain modernoak ez direnez eta marka eta frankizia handien aurrean lehiakortasun txikia dutenez, krisian sartzen dira.
- Hirigunea hustu egiten da eta kalearen balioa desagertu egiten da bertako biztanleentzako gizarte bizikidetzarako espazio gisa.

BIDE, PORTU ETA AIREPORTU AZPIEGITUREN LURRALDE JASANGARRITASUNA

- ***Jarauntsitako antolakuntzaren eta motorizazioa sustatzen duten ezarpen berrien arazoak. Barneko eta kanpoarekin lotzeko bide azpiegitura berriekin konponbidea emateko ahaleginak egiten dira hasiera batean***

Hondarribiari zerbitzu ematen dioten azpiegituretan, hiriko trafikoa jasotzeko barneko bide sarearen urritasunean eta portu eta aisiarako horniduren (kirol portua, Hondartza) sarbidean oinarritzen dira giltzarriak, Portu aldea gehiegi kargatzen baitute. Soroaldeko bide sarearen egituraketak, eta eremu horren garapen anarkikoak, zailtasunak eragin dituzte ibilbide alternatibo eraginkorrak erabiltzeko garaian. Jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta,

argi dago arazoaren sustraia automobilean oinarrituriko mugikortasunean dagoela eta lurralde antolakuntzan baztertu egin behar dira ibilgailuen erakartze puntuak, hirigunetik ibiltzera behartzen dutenak (aparkalekuak). Bi arazo horiek oso nabarmenak dira Hondarribian eta pixkanaka-pixkanaka okerragotzen ari da egoera, aisialdi eta aparkalekurako erdigune bilakatzen ari baita hondartza ingurua.

Konponbide gisa, erdialdeko trafikoa arintzeko aukera moduan bide alternatiboa gauzatzea planteatzen da, kontu hori jada jasoa dago Arau Subsidiarioetan eta hainbat fasetan eraikitzen ari da. 2005eko ekainean jende aurreko informazioan jarri zen bidearen azken zatia eta 2005eko urte honen amaieran edo 2006. urtearen hasieran obrak egiten hastea espero da.

Kanpoarekiko loturari dagokionean, gertaturiko bilakaerak erakusten du indartu egin dela Irun, N-1 errepide eta A-8 autopistarekiko komunikazioa. Irekitze hori izan zen, hain zuzen ere, Hondarribia bere egungo eredu sozioekonomikoari zabaldu ziona, egoitza eta aisialdirako erabilera izanik nabarmenenak. Eredu horren sustapenak eta motorizazioa areagotzeak, hainbat jarduera aurrera eraman arren, eskari iraunkorra eragiten dute azpiegituretan. Horri dagokionean, egungo N-638 bikoiztea eta Plaiaundin barrena Irungo Iparraldeko Saihesbidearekin lotzea aurreikusita dago. Ildo beretik, N-1 errepidea zabaltzea aurreikusten da Jaitzubia haranean eta bi mailako biribilgunea egitea Eskualdeko Ospitalearen eremuan. Aurreratuagoa dago N-1 errepidearen zabaltzea Errenteriaraino (eta trazatu berria Lezo aldean).

Ekintza horiek, egungo trafikoaren pilaketa murriztea eta Portuan barne trafikoa arintzea ekar dezakete epe laburrean. Halaz ere, bide azkarragoak izateak trafikoa areagotzea eragin lezake, eta faktore horrek, beste elementu batzuekin batera (ibilgailu kopurua, hiri garapena, bisitariak erakartzeko gaitasuna, iragaitzazko trafikoa eta bertako biztanleek sarrerak eta irteerak), epe ertain eta epe luzera ekintza berriak burutzeko beharra eragin lezake, inolaz ere. Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinak jasotzen ditu proposamen horiek guztiak eta ildo beretik bideratzen da. Euskotrenen sarea hondartzaraino luzatzeko Udalean sorturiko ekimena, aldiz, aldeko aukera bat da alderdi horietatik begiratuta.

- ***Arrantza instalazioak, lurraldean bateratuak***

Instalazioak handituta, lortu da arrantza jarduera lurraldean bateratzea, lehen zatitua baitzegoen, eta horrek aukera eman du zentralitate baldintza bikainak

dituen eremua berreskuratzeke, Arau Subsidiarioen arabera. Era berean, hirigintzaren ikuspegitik begiratuta, ebakiaren arazoa konpontzeko aukera eman dezake estuarioaren ertzeko oinezkoentzako ibilbidean (Butron Pasealekua eta Bidasoa Pasealekuaren artean), gaur egun oraindik ontzitegia mantenduz eta Kai Zaharreko eremuan jarduerak aurrera eramane gabe.

Hegoaldeko dikearen eraikuntzaren beste helburuetako bat zen portuan sorturiko hondakinen eragina murriztea hondartzan. Ez dugu informaziorik alderdi horretan lortutako emaitzak aztertzeke.

- ***Kirol portuan biltzen da jarduera, baina ez da gai izan badien amarratzeak antolatzeke, hasierako helburuetako bat izanik.***

Puntalea eta Babes Portu-Hondartza zatia bezalako beste aukera batzuk aztertu ondoren aukeratu zen hondartza atzealdeko kokalekua. Hondarribiko Kirol Kaiaren ingurumen eraginaren Azterketaren arabera, eginiko aukera horrek abantailak eskaintzen zituen lehorretik eta itsasotik sarbide erraza izateagatik, itsasontziak urrundu egingo ziren hondartzako eremutik eta Txingudiko Badiatik ere aski urruti dago. Alde txarrei dagokienean, berriz, espigoia etetea zekarren (hori neurri batean konpentsatzen bazen ere itsas pasealekua eta oinezkoentzako igarobidea eraikitzean, baina azkenean ez egiteko erabakia hartu zen), eta azalera handia hartuko zen hondartzaren atzealdean (dragatzeen hondar isurketen bidez hondartza handituta konpentsatuko zena)

Estuarioaren okupazio txikiagoarekin loturiko emaitzei dagokienean, ez da lortu ontzi kopurua murriztea, 630 baitziren 1992. urtean (325 Klub Nautikoan, 135 Butron Pasealekuan, 60 Puntalean eta 110 Santa Engrazian) "Hondarribiko Kirol Kaiaren eskaria, kudeaketa eta eragin sozio-ekonomikoa" azterketaren arabera. Kirol kaiak Nautiko aldetik eta badiako beste leku batzuetatik etorritako 300 bat ontzi hartu ahal izan bazituen ere. Aldiz, gaur egungo egoerak erakusten du ontzi kopuru handia dagoela ainguratuta, eta 267 ontziko itxaron zerrenda dago gainera.

Plaza eskari horrez gainera, pentsa daiteke badela bestelako eskari bat, kirol kaia erabiltzea planteatzen ez duena, eta jarduera horiek areagotzeko faktorea izan zatekeela kaia. Instalazioa beste 245 plaza berrirekin handitzea aurreikusten da beteteranoen kaian, eta seguru asko epe laburrean beteko da aurreikuspen hori, baina nolana ere, ez da aski izango badiari erabilera hori

kentzeko. Horrenbestez, badirudi, neurri horiek ez direla aski arazo horri konponbidea emateko eta beste era bateko jarduerak eraman beharko dira aurrera.

- ***Aireportua, jasanezintasun faktoreekin, baina jatorrizko egoera naturalera lehengoratzeko zaila***

34,3 ha-ko azalera hartzen du laborantza eremu baten barnean, jatorrian padura zena. Espazio hori okupatzeaz gainera, inguruko eraikuntza garapenarekiko zortasunak daude bertan. Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan sendotu egiten da onartu ziren unean (1977) zegoen instalazioa. Jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta, eremu heze baten okupazioa eta betetzea, inguruko biztanleei eragiten zaizkien eragozpenez gainera, ez dira, inolaz ere, aldeko faktoreak. Halaz ere, elementu positiboago batzuk aurki daitezke, espazio honen okupazioa lehengoraezina ez izatea, esate baterako, horretan, zalantzarik gabe, paper garrantzitsua izango zuen eraikuntza presioak, eta inguruaren garapenaren arintzea neurri murriztaile gisa aire zortasunak aplikatzean.

Plan Zuzentzailea aplikatuta, egoera hori nabarmen aldatzen da eta efektuak handitu egiten dira. Horren ondorioz, aldaketa handiak egin behar dira inguruko hiri eremuan, estuarioko eremu naturalen okupazioa areagotzeaz gainera. Dirudenez, azkenean ez bada aurrera eramango ere, oraindik errebindikazioak planteatzen ari dira eragile ekonomikoetatik "oreka" natural hori gal ez dadin, jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta bere egoera egokia: besterik gabe estuarioaren zati bat izatea, berreskuratzeko zailtasuna kontuan harturik.

2007ko urtarrilaren 22an Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia-San Sebastián, Irun eta Hondarribiko Udalek eta Gipuzkoako Bazkondeak Ortzibia, S.L. elkarteak osatzen dute, aireportuaren hobekuntza eta modernizaziorako ekintzak aurrera eraman eta aireportua sustatzeko asmoarekin. Elkarteak osatu ondoren, Administrazio Kontseilua osatzen duten 11 ordezkari izendatu zituzten: Eusko Jaurlaritzak aukeratutako hiru kide, Diputazioak aukeratutako hiru kide, beste bi kide Gipuzkoako Bazkondeak aukeratuta eta beste hiru udal bakoitzak aukeratuta.

2007ko azaroan Hondarribiko Udal Plenoak, aho batez, aireportuaren handitze lanen aurkako jarrera azaldu zuen Udaletxeko Kapituluko Gelan izandako Pleno monografiko batean.

ZORUAREN OKUPAZIO GLOBALAREN IKUSPEGIAK UDALAZ GAINDIKO IKUSPEGITIK BEGIRATUTA. JAUZI KUALITATIBO HANDIA GARAPENEAN

- *Bidasoa-Txingudi, Oarsoaldera eta Donostialdera zabalduko hiri orbana*

Donostialdea-Bidasoa Beherea eremu funtzionalaren hiri garapena, hasiera batean hirigune (Donostia, Irun, Errenteria, Hernani,...) eta jarduera eremu (Pasaiaiko Portua, Muga) nagusien inguruan sarturik, komunikazio korridoreetan zehar hedatzen joan da gero. Gipuzkoaren gainerakoarekin alderatuta topografia hain gogorra ez izatean, haran hondoen mugak gainditu ditu eremuaren garapen berriak, hiri korridore erdi-jarraia eratuz, konurbazio ezaugarriekin barne zerrenda batean itsasertzaren paraleloan.

Ilido horretatik, hiri eremu jarraituan dago Hondarribia, eta eremu horretan lausotu egiten dira Hondarribia, Irun eta Hendaia arteko mugak, eta hiri sarea Baionatik Donostiaraino hedatzeko aukera ere hortxe dago. Antolakuntza dokumentuen aurreikuspenek indartu egiten dute hiri eremuen hazkunde eta integrazio eredu hori, libre egon diren tarteko espazioak beterik eta hiri eremuak topografia txikiko eremuetara zabalduz, nekazaritza erabilerakoak horiek gehienetan.

Udalaz gaindiko plangintza dokumentu gisa, EAeko Lurralde Antolakuntzarako Ardatzek zehazten dute lurraldearen garapena, eskala txikiagoan Donostialdea-Bidasoa Behereako Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialek jaso dezaketen esparrua, horien gaineratik baitago hura. Beste esparru eta birtualtasun batekin, Baiona-Donostia Eurohiriaren prozesuak ere ikuspegi globala eskaintzen du garapen ereduari dagokionean.

Plangintza horrez gainera, ekimen berriak sortzen ari dira, eta batzuetan zehaztutako esparruak gainditzen dituzte horiek. Halatan, Jarduera Plan Integralak eta Lurralde Antolakuntza Proiektuaren Eskema Zuzentzaileak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Antolakuntza eta Sustapen Sailak

sustatuak horiek, orain Jaizkibelgo Korridore Intermodala deiturikorako aurreikusitako azpiegitura proposamen ugariak integratu nahi dituzte.

- ***Garraioarekin loturiko azpiegiturak ezartzeko ekimen ugari Jaizkibelgo Korridore Intermodala eta Jaizkibia, S.A. eratuz. Bost proposamen eskatu dira Hondarribitik.***

Behobia inguruko lurraldearen okupazioan gorpuztu bada garraio sektorearen garapena, gaur egun hainbat proposamen daude heltze maila desberdinetan, eta horiek aldaketa handiak ekar ditzakete orain ezagutzen dugun Bidasoa-Txingudi eskualdera.

Pasaia-Irun ardatzean (esparru handiago batean sartua) hainbat jarduera bideratzen ari dira instituzio foroak sortzen dituztenak (Pasaialdeko Institutio arteko Batzordea, Jaizkibia, S.A), hainbat plan sektorial (Sare Intermodal eta Garraioaren Logistikaren Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerakina, Burdinbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala) eta zonaldeko plan (Donostialdea- Bidasoa Behereko Lurralde Plan Partziala) eratuz.

Orain Jaizkibelgo Korridore Intermodala deitzen den multzo honetan funtsezko piezak dira burdinbide azpiegiturak eta Pasaiaiko Portuaren kanpo zabalpena, plataforma logistikoak eta bide azpiegiturak sendotzea.

Burdinbide sareari dagokionean, batik bat abiadura handiko Euskal Y deiturikoarekin lotuta daude aurreikuspenak, bai merkantziak bai bidaiariak garraiatzeko. Bestalde, hiru proposamen daude geltoki intermodalei begira: Euskomodal (100 Ha-tan egungo burdinbide espazioan Kateatik Hendaiara), Araso, biak Irunen eta Larramon Lezo-Gaintxurizketan. Aukera horien aurrean, hasierako asmoak birplanteatzen eta osagarriak bilatzen ari dira.

Plataforma logistikoei dagokienean, ZAISAn daudenez gainera, gaur egun Lanbarrenen (Oiartzunen, 50 Ha-ko azalerakoa) eraikitzen ari direna eta Gaintxurizketako eremuan aurreikusitakoa erantsi behar zaizkie. Sare Intermodalaren Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerakinak, kokaleku zehatzak aipatu gabe, 100 Ha-ko Plataforma Intermodala aipatzen du Bidasoa eremuan, Biriaturtik gertu eta Irun eta Hondarribiko udalerrietan. Era berean,

50 Ha-ko Jarduera Logistikoen Eremu bat (JLE) jasotzen du Aurrerakin horrek Pasaia-ko portuari laguntza emateko, Lezo, Pasaia, Oiartzun eta Errearterian egiteko.

Errepideei dagokienean, eremu hauek Lezon N-1 errepidearen trazatu berriarekin elkartzea aurreikusten da, lau bideko trazatua, Iruneraino iritsiko dena. Gainera, Lurralde Plan Partzialaren Aurrerakinaren Modelo Alternatiboan A-8 autopistaren saihesbide trazatu berria planteatzen da hegoaldetik. Horrenbestez, metropoliko banaketa ardatz bilakatuko litzateke A-8, garapen berriei loturik.

Bestalde, Hondarribiak jada erabaki du dagokion kapital zatia harpidetzea planaren elkarte kudeatzailean (Jaizkibia, S.A.). Jardueren Plan Integralean bost proposamen sartzea eskatzen da: Euskotrenen linearen lotura Hondarribiraino (hondartza), N-1 bitan banatzea, Zubietako Enpresa Parkea sortzea, industrialde bat Zaldunbordan eta golf publikoa Justizen.

2.2 Lurralde Antolakuntzaren sintesia Hondarribian, jasangarritasunaren ikuspegitik

Hondarribiko hirigintza-ereduaren bilakaera
<ul style="list-style-type: none">• XIX. Mendeko bigarren erditik aurrera, hiria zabaldu egin zen; zabaltze hori, besteak beste, sarbideak hobetzeak eta udalerrria aisialdirako eta uda-garaiko gunetzat espezializatzeko eragin zuten. Azken hori izan da, hain zuzen, udalerrian gerora izan den bilakaeraren ezaugarri.• 1915-1955 aldirian, hazkundea moteldu egin zen. Etxe batean sartzeko sustapen publikoko lehenengo ekimenak egin ziren.• 1956tik, eraldaketa handiak izan ziren hirigintzan; hedapen handiko plangintza-tresnak onartu ziren, baina horiek ez ziren oso eraginkorrak izan antolakuntzarako.• Indarrean dauden Arau Subsidiarioen diagnosis (1995): bizitegi-espezializazioa, espekulazio-merkatua eta baliabide gutxien dituzten pertsonen udalerrira uztea.
Hiri-lurren erabilerak
<ul style="list-style-type: none">• Bizitegi-lurrak dira nagusi, eta, gainera, gehienak dentsitate txikiko tipologia sartzen dira; hori ez dator bat jatorrizko hirigunearekin.• Indarrean dagoen plangintzaren diagnostik ondorioztatutako helburua: garapena lurralde-educieraren eta tokiko biztanleriak dituen premien mende jartzea.• Plangintzako esku-hartzeko proposamenak: dentsitate ertaineko etxebizitza gehiago egitea, baina, horiez gain, dentsitate txikikoak ere ugaitu egin ziren• Benetako garapena: 1996-2004 bitartean, 1.267 etxebizitza egin ziren, eta horietatik %30 sustapen publikokoak.
Etxebizitza-parkea eta horren eragina lurraldean
<ul style="list-style-type: none">• Etxebizitza-parkea hazi egin zen, eta etxebizitza bakoitzeko okupazio-tasan beherakada handia gertatu zen.• Bizitegi-lurren kontsumo-faktoreen portaera; izan ere, 2018rako baliabide guztiak agortu daitezke, biztanleria hazkunde-maila txikietan mantendu arren.

Berdegunek eta estandarren betetze-maila

- Inguruaren kalitateak eta etxebizitza-dentsitate txikiak hornidura-estandarrek ez betetzea arintzen dute.

Ekonomia-jardueretarako lurra

- Tokiko industria-lurrak eta enpresa-parkea; plangintza-helburuak.
- Helburuak birplanteatu egin dira; batez ere, ohiko jarduerak garatzeko lurak bultzatu dira, eta, horretarako, Jaizkibelgo Korridore Intermodala hartu da oinarri (2005etik, udalerrri bakarra sartu da).
- Tokiko merkataritza-sektorearen egitura txikia dago, eta horiek ekipamendu handien eta horiek bultzatzen duten ereduaren eragina nabaritzen dute.

Bideetako, portuetako eta aireportuetako azpiegituren lurralde-iraunkortasuna

- Lehenagotik datozen arazoak eta motorizazioa eragiten duten ezarpen berriek sortutakoak; arazo horiek konpontzeko, hasiera batean, hiri-barneko bide-azpiegitura berriak eta kanpoaldearekin elkartzeko lotura berriak egin behar dira
- Arrantza-instalazioak, lurraldeari dagokionez, bilduta daude.
- Kirol-portuak jarduera bateratu du, baina ez du lortu badiako amarratzeak ordenatzea; hori zen, gainera, bere helburu nagusietako bat.
- Aireportuan nabariak dira iraunkortasun-faltaren faktoreak, baina oso zaila da hasierako egoerara itzultzea.
- Donostiako Aireportuko Plan Zuzentzailearen onespenerekin (uztailak 13ko FOM/2017/2006 ordenarekin), aurreko plana bertan behera gelditzen da eta neurri berdinak mantentzen dira aireportuan
- 2007ko urtarrilaren 22an Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia-San Sebastián, Irun eta Hondarribiko Udalek eta Gipuzkoako Bazkondeak Ortzibia, S.L. elkarte osatzen dute, aireportuaren hobekuntza eta modernizaziorako ekintzak aurrera eraman eta aireportua sustatzeko asmoarekin. Elkarte osatu ondoren, Administrazio Kontseilua osatzen duten 11 ordezkari izendatu zituzten: Eusko Jaurlaritzak aukeratutako hiru kide, Diputazioak aukeratutako hiru kide, beste bi kide Gipuzkoako Bazkondeak aukeratuta eta beste hiru udal bakoitzak aukeratuta.
- 2007ko azaroan Hondarribiko Udal Plenoak, aho batez, aireportuaren handitze lanen aurkako jarrera azaldu zuen Udaletxeko Kapituluko Gelan izandako Pleno monografiko batean.

•
Aurreikusi den lurzoruaren erabateko okupazioa, udalaz gaindiko ikuspegitik. Pauso kualitatibo bat
<ul style="list-style-type: none">• Bidasoa-Txingudi, Oarsoaldera eta Donostialdera zabaldutako hiri-eremurantz• Garraioari lotutako azpiegiturak jartzeko ekimen ugari egin dira; horretarako, Jaizkibelgo Korridore Intermodala eta Jaizkibia SA sortuko dira. Hondarribian egindako bost proposamen.

3. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA: LABURPENA

3. GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA: LABURPENA

3.1 Garraio eta mugikortasunaren inguruko gogoetak, jasangarritasunaren ikuspegitik

Mugikortasun jasangarriaren ikuspegitik, guztiz bereizi behar dira pertsonen eta merkantzien mugikortasunaren gaineko azterketak.

Pertsonen mugikortasunari dagokionez:

- Berezi nabarmendu beharra dago oinez mugitzen diren pertsonen kopurua, %55eko maila iristen duena. Beraz, guztiz kontuan hartu behar da egoera hau, mugikortasun molde guztietarako espazio publikoak lehenesterakoan.
- Pertsonak lanera joateko mugitzen dira nagusiki, %46 mugitzen baitira arrazoi honengatik. Aisiarako mugitzen direnena da bigarren portzentaia garrantzitsuena, %33ko maila iristen baitu. Beharturiko mugikortasuna, lanera eta ikastera lekuz aldatzen diren kopurua, aintzat hartuz gero, desplazamenduen %55 molde horretakoak direla ohartuko gara. Halatan, errepikatu egiten dira egunean egiten diren desplazamenduen erditik gora, eta berbera izan ohi dute abiapuntua eta helmuga.
- Irun dugu udalerritik kanpoko jomuga nagusia. Garrantzi handia dute joera honetan lan eta aisiarako desplazamenduek, %53ko maila iristen baitute.
- Gora egin dute motorizazio-tasa lehenago ere garrantzitsuek: 42 ibilgailu 100 biztanleko 2003an. 2005 urtean berriz, 43,2 ibilgailu zeuden.
- Jendea gazteago hasten da ibilgailuen munduan, motorren bitartez. Halatan, mugikortasunaren eskema jasangarrietatik urruntzen ari da populazio gaztea, lehen mailako helburu bihurtzen ari baita ibilgailu pribatu baten jabea izatea. Helburu hori gauzatuz gero, zaila da beste garraio molde alternatibo batzuetara bihurtzea.
- Garraio publikoaren eskaintza on samarra da Irunekiko harremanetan, baina eskasa Donostiarekikoetan.

3.2 Hondarribiko garraioa eta mugikortasuna, jasangarritasunaren ikuspegitik. Laburpena

Garraioa eta mugikortasuna

- Hondarribiko udalerrian motorizazio-mailak areagotu egin dira pixkanaka-pixkanaka 2005. urtera arte. Hazkundera orokorra izan da ibilgailu-mota guztietan
- Eskualdean egiten diren ia desplazamendu guztiak probintzi berean ematen dira (%95,93). Aldi berean, portzentai honetatik, gehiengo barrukaldean (eskualde barruan) ematen diren desplazamenduei dagokie (%79,66), ondoren Donostiara ematen diren desplazamenduak (%8,63) eta azkenik Donostialdeara ematen direnak (%6,23).
- Udalerritik kanpo Irunera egiten dira desplazamendu gehien: lana (%54,9), ikasketak (%40,5), erosketak (%87,5) eta aiaialdia (%50a baino gehiago).
- Kotxea da gehien erabiltzen den garraibidea lanera joateko (%63,7), ikasketa arrazoiengatik (%40) eta erosketa handiak egiteko (%83,5)
- Jende asko desplazatzen da oinez. (Desplazamenduen %55).
- Egunero egiten diren desplazamenduen erdia baino gehiago errepikariak dira; hau da, jatorri eta helmuga berekoak dira ia desplazamendu guztiak. Beraz, planifika daitezke.
- 2002. urtean Gipuzkoako Bidegorri Sareen Plana idatzi zen. Ordutik hona, Aldundiak proposatutako bidegorri zenbait zati eraiki ditu. Gainera, Bizikletaren Lurralde Arloko Planaren idazketak Gipuzkoako Bidegorri Sareen Planean jasotako oinarrizko sarea zabaltzeko aukera ematen du. 1.Ibilbideak: Donostia/San Sebastian – Muga, hiriburua Irun eta Frantziako mugarekin lotzen ditu. Etorkizunean, tokiko, eskualdeko eta foru-partaidetza eskatuko duen Irun eta Hondarribiaren arteko lotura ere kontuan izan beharko da.
- Hondarribian bi bidegorri luze daude (kostarekiko paralelo), eta epe motzera horiek luzatzea aurreikusten da, sarea osatzea

baita helburua. 2005 eta 2006 urteetan 2,18Km zeuden 10.000 biztanleentzat.

- Hiritarren hautemate-inkestaren arabera, garraio publikoak eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatea ertaina da; 4 puntutik 2,5eko puntuazioa eman diote. Prezioak, ohi bezala, ez du hain balorazio ona izan, 4tik 2 puntu eman diote hiritarrek. emaitza hauek aldatu egin daitezke Lurraldebus txartel bakarra martxan jartzearekin batera.
- Motorizazio-adina gero eta gazteagoa da.
- Irunera joan-etorriak egiteko garraio publikoaren eskaintza ona da: 2005-2006 bitarte, erabiltzaile kopurua 249.652 handitu da. Bestalde, Donostiara joan-etorriak egiteko garraio publikoaren eskaintza eskasa da.
- Azken datuen arabera, 2006 urtean, aireportuak 12.076 aireontziko trafikoa izan zuen, guztira 368.009 bidaiari jaso zituelarik. Azken urteetan igoera handia eman da aireontzi eta bidaiari kopuruan. Kanpo-mugikortasunari dagokionez, eta EAEko beste aireportuekin alderatuz, esan daiteke bigarren mailako aireportua dala. Erabiltzaile gehienak eskualde bertakoak edo inguruikoak dira eta batez ere lan kontuengatik erabiltzen dute
- Bidasoa-Txingudi Mugikortasun Planaren proposamenen txostena 2007ko abenduan aurkeztu zen.

4. INGURUMENA: LABURPENA

4. INGURUMENA: LABURPENA

4.1 Hondarribiko ingurumenaren inguruko gogoetak, jasangarritasunaren ikuspegitik

HONDARRIBIKO ANIZTASUN EKOLOGIKOA (BIODIBERTSITATEA)

- ***Senadia, soroaldea eta mendia, berezko unitateak.***

Bi unitate arras desberdinek, senadiak eta mendiak bat egiten duten gunean dago Hondarribia. Haien artean hedatzen da soroaldea. Hedaturari dagokionez, udal eremuaren erdia hartzen du Jaizkibel mendiak (3.085 ha). Itsas labarrak ageri ditu Jaizkibel mendiak iparraldean, eta landa atlantikoak hedatzen dira haien gainetik. Udalerriko behe lurretan ageri dira padurak eta hondartzak. Biziki aldatu da alde hau, giza eraginaren poderioz. Tartean zabaltzen da soroaldea, belardiak eta baso txikiak han eta hemen. Alde hauek guztiak lotzen dituzte bi aldeetan errekek eta ibaiadarrek, korridore ekologikoen papera betez.

- ***Egungo landaretza, giza jardueren ondorioa, hariztiak eta ameztiak nagusi ziren azpiko landaretzaren gainean***

Aldaketa sakonen berri ematen digu ekosistemen egungo egoerak. Giza jardunak eragin ditu aldaketa horiek. Nagusi behar zuten hostozabalek (ameztiek Jaizkibel mendiaren iparraldean, hariztiek haren hegoaldean, eta haltzadi atlantikoek behe-ibarretan) lurralde honen baldintzen arabera landaretzan. Beste molde bateko landareak azaltzen ziren, halaber, eremu murriztago batzuetan: padura, hondartza eta labarretan.

Landaretzaren egungo banaketak berezitasun handiak erakusten dizkigu Hondarribian Gipuzkoako batez besteko balioen aldean. Eremu gutxiago hartzen dute Hondarribian zuhaitziek (%22,4 eta %59,7 Gipuzkoan) eta, alderantziz, handia da sasiak edo laharrak harturiko sailen maila (%30,5 eta %7,0 Gipuzkoan) eta produkzioarako balio ez duten lur-eremuen tamaina (%14,8 eta %6,1 Gipuzkoan). Bigarren bereizgarri interesgarria dugu hostozabalek egun ere baso eta zuhaitzietan ageri duten ugaritasuna, haien %26,6 okupatzen baitu, esate baterako, baso atlantikoak. Zuhaitzien eremuaren %4,1 hartzen du *pinus radiata* edo intsinis pinuak, eta %27,7 Gipuzkoan.

Halatan, paisaiak eskaintzen digun irudiaren osagarri dira Jaizkibel mendiaren iparraldeko landak eta txilardiak, eta Jaizkibel mendiaren hegoaldeko ibarretan soro eta hostozabalen baso txikiak, etxeak han eta hemen. Ertz batean ageri dira halaber itsas labarrak eta beste ertzean paduratik gelditzen diren arrastoak inguru guztiz urbanizatu baten ondoan.

Irudi honen eta naturak berez emango zuenaren artean, bereziki aipagarria da ameztiaren (Jaizkibel mendiko zuhaitzien %5) eta hariztien murrizte nabaria. Horren ugari azaltzen ez diren unitateei dagokienez, nabarmen ikus daiteke estutu egin direla erreka eta ibaiadarren ondoko haltzadi-zerrendak, galdu egin da, aldi berean, itsasertzeko hondartzetako landaretza, eta gune bakar batera murriztu da ereinotza nagusi azaltzen den askotariko basoa.

▪ ***Erabakigarria da guztiz giza faktoreen garrantzia ekosistemak aldatzerakoan***

Giza jarduerekin lotu behar dira egoera hau ekarri duten faktoreak. Hona hemen jarduera nagusiak: laborantza eta abere-hazkuntza, sua, basoaren ustiakuntza, urbanizazioa, bazterreko erabilerak eta kanpoko landare motak.

Laborantza, abere-hazkuntza eta basoaren ustiakuntza: Eremuaren aldetik abere-hazkuntzak eta basoen ustiakuntzak eragin dute aldaketa handiena berezko landaretzan. Hariztiak zurgintzarako moztu eta sail haiek larre eta baratze lur bilakatu ondoren sortu zen Jaizkibel mendiaren hegoaldeko soroaldea. Paduren kasuan, itxituren bitartez idortu ziren lurak baratze eta segarako lurak antolatu ahal izateko. Horrenbestez osatu zen alde honetako laborantza paisaia. Jatorrizko landaretzak gune bakan batzuetan baizik ez du iraun. Jaizkibel mendiaren iparraldeko mazeletan, abere-hazkuntza estentsiboa bideratu da, tratamendu berezi batzuetan oinarriturik, lehen hariztiak okupatzen zituzten lurretan. Eremu hartan, bai eta hegoaldeko mazeletan ere, basoberritze saio handiak egin ziren XX. mendean konifero mota batzuen bitartez, eta arras aldatu zen horrenbestez mendiaren jatorrizko itxura.

Sua: Aldakuntza prozesu bizkor honetan, eraginkorra izan da era berean suaren ekina. Aspaldidanik erabili da sua larreak hobetzeko. Egun, horren erasokorrak ez diren beste egiteko molde batzuek hartu dute haren ordea, baina zenbaitetan arazoak sorraraz ditzakete horietako batzuek ingurumenean. Mendian bazkatzen den aziendaren hedapena dela-eta, biziki murriztu da suaren arriskua, landaretzaren garapena mugatu delako. Jaizkibel mendiaren hegoaldean suma daiteke bereziki egoera hau. Beste egiteko molde batzuk bideratu dira, halaber, larreen emankortasuna emendatzeko,

hala nola basoberrituriko lur-sailen itxiturak, sasiaren garbiketa-lanak eta ongarrri eta gai belar-hiltzaileen bidezko tratamenduak.

Urbanizazioa: Laborantzak aldarazitako guneetan hedatu da nagusiki hiri-egitura. Eraikuntzarako lurak prestatzeko, eremua bete edo basogabetu egin da, eta hormak eta uharridiak eraiki dira itsasertzean eta erreka eta ibaiertzetan. Interbentzio molde hau askoz indartsuagoa izan da garai batean padurek eta behe-ibarrek okupatzen zituzten lurretan. Hiria etxe bakanen eta dentsitate apaleko eraikuntzen bidez itxuratu da eta, beraz, eremu zabalak urbanizatu dira. Hala eta guztiz ere, egoera honen alderdi positiboa ere azpimarra dezagun, honenbestez iraun ahal izan dute landaretza naturaleko guneek eta eremu horien aldaketa ez da erabatekoa izan. Saihestu ahal izan da honenbestez beste erabilera batzuek (hirialde trinkoek, industrialdeek, azpiegiturek...) ekarriko zutena

Bazterreko erabilerak: Bazterreko erabileren artean daude, egokiro ordenatu ez direlarik, lurraldean han eta hemen hedatzen diren erabilera mota batzuk, bideratzen diren guneetan eragin larria eduki lezaketenak: eraikuntza-materialen bilguneak, lorategietako hondakinak, aparkalekuak, era askotako zabortegeak, eta abar.

Kanpoko landare motak: Azkenik, inguru batzuk aldarazten ari da kanpoko lore mota batzuen presentzia. Basoaren ustiakuntzarekin loturiko zuhaitz motez gainera, bereziki aipatu behar dira Hondarribian padurarekin (basalandare kolonizatzaileak edo lorategi jardunetik datozen landareak) eta larreekin (haietan bideratzen diren tratamenduen ondorioz ekarritako landareak) loturiko landare motak.

▪ ***Fauna espezie zerrenda zabala katalogatu bada ere, arriskuan daude haietako asko habitatak aldatzen ari direlako***

123 espezie azaltzen dira Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan (AEEZ) edo 92/43 (Habitaten Zuzentaraua) eta 79/409 (Hegaztien Zuzentaraua) zuzentarauen eranskinen batean. Egoera zailenean daudenak azalduko ditugu bereziki ondoren, egoera horiek eragiten dituzten faktoreen eta sortutako arazoen berri emanez.

Hegaztiak: Bi espezia daude Betikoz Galtzeko Arriskuan: Benarriz gorritza eta Benarriz arrunta. Padurako hegaztiak dira biak. Bi kasuetan, espezie hauen kontserbaziorako ezinbesteko neurriak dira umeak hazten dituzten guneen babes zehatza eta itsasertzean uretako landaretza duten guneen hedakuntza, baina garrantzi berezia du inolaz ere lezkadien babesak. Halatan, bi espezie hauen egoera hobe liteke Jaitzubia eraberrituta.

Ugaztunak: Horren larria ez bada ere, aipagarria dugu atal honetan Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan Kalteberatzat hartuak diren eta Habitaten Zuzentzarauaren II. eranskinean ere azaltzen diren bi ugaztunen egoera. Ferra-saguzar handia eta Ferra-saguzar txikia dira biak, eta basoetan bizi dira. Jaizkibel mendiko hareharrian sorturiko leizeak eta etxe eta eraikin abandonatuak erabiltzen dituzte. Oso sentiberak dira gizakiak eragin ditzakeen oztopoen aurrean, eta gizakiaren ekina saihestu beharko litzateke haien kontserbazioari begira.

Arrainak: Bereziki aipatu beharra dago arrain hiruarantzaren egoera, Bizkaiko kostaldeko herri batzuetan eta Jaitzubiko errekan baizik ez baita haren presentziaren lekukotza baieztatu. Haren kontrako mehatxu handienak dira uren kutsadura, idortea eta populazioen bakantzea. Aldeko luke paduren kontserbazioa eta eraberritzea, baina kalterako du betiere Jaitzubiko errekan oraindik ere dagoen kutsadura.

Urlehortarrak: Apo lasterkaria aipatu beharra dago bereziki atal honetan. Harrapatzeak eta zanpatzeak dira haren kontrako mehatxu handienak.

Narrastiak: Schreiber muskerra aipatuko dugu bereziki. Soroaldean bizi da, landaretza ugariaren artean, landa eta gunee higraturbosoetan. Habitat molde honi eutsi behar zaio eta iragazkortasuna bermatu, espeziearen isolamendua saihesteko.

Espezie hauen eta, oro har, udalerriko faunaren egoeraren ezagutza eskasa dela-eta, biziki zailak gertatzen dira haien babeserako lanak, eta zaila da era berean haien iraupena arriskuan jartzen duten jardueren ebaluazioa.

▪ ***Natura intereseko gune nagusiak***

Hona hemen natura intereseko gune nagusiak, ingurumen, naturaren eta espezien kontserbazioari begira ezinbesteko diren neurrien ikuspegitik aztertutako faktoreen arabera:

- Jaizkibel mendiaren iparraldeko mazela eta itsas aurreko aldea. Esparru horren barruan, bereziki aipatzekoak dira itsasoan zuzenean husten diren errekek, Justizko baso laurifolia eta Turruia Puntako inguruak.
- Jaizkibel mendiko gaina
- Jaizkibel mendiaren hegoaldeko errekek
- Jaitzubiko erriberak eta padurak

- Ur gezako hezegune txikiak.

LURRALDE ANTOLAKUNTZARAKO TRESNA OROKORREN ARABERAKO ORDENAZIOA ETA BABESA

- ***Indarrean dagoen udal plangintzak ez ditu babeserako estatus berriak jaso eta ikuspegi desberdinari eusten dio betiere bere helburuetan***

Honako alde hauek bereizi dira Zoru Ez Urbanizagarrian, eta Hirigintza Jarduerarako Eremuetarako erregimen batzuk ere zehaztu dira zoru mota honekin lotura duten alde batzuei begira:

- Babes bereziko landa-eremuak: Higer Lurmuturreko labarretako eremuak.
- Landa-eremu arruntak
- San Telmo-Higer Parkea
- Jaizkibel Mendiko Aisiarako Gunea
- Natura Intereseko Guneak: Txingudi/Jaitzubia
- Hondartza

Babes maila handiena dute babes bereziko landa-eremuek (Higerko labarrek) eta Txingudi/Jaitzubiak. Lehen kasuan, erabilerak oso mugatuak dira eta ingurumenaren babesa beste helbururik ez dute. Txingudiren kasuan, Txingudiko Baliabide Naturalen Babes eta Ordenaziorako Plan Bereziaren arauak bideratzen dira; haien arabera, Babes Bereziko eta Laborantzaren Babeserako guneak zehaztu dira, balio naturalen iraupena eta berreskuratzea bermatuz betiere.

Espazio Libreen Sistema Orokorraren barruan daude San Telmo-Higer eta Jaizkibel Mendia, Parke gisa lehena eta Aisiarako Gune gisa bigarrena. San Telmo-Higer Parkerako (16,6 ha) eginiko aurreikuspenaren arabera, eremu batean bildu eta ordenatuko da jatorria hirian duen aisia-jarduera.

Naturaren babeserako eremu gisa hartu da Jaizkibel Mendia eta hartan modu arrazional batez kudeatuko dira abere-hazkuntza, baso ustiakuntza, itsas eta aisiarako baliabideak. Lehenetsun gisa, bereziko babestu eta eraberrituko dira haren "baserri" giroko ezaugarriak, eta aisiarako gune gisa egokituko da. Beren horretan utziko dira egungo gune urbanizatuak eta erabilera didaktikora edo zerbitzuetara mugatuko dira berriak, naturan eragina murriztuko duten eraikinen bitartez. Bi aisiarako gune zehaztu dira

(Guadalupe eta Santa Barbara Gotorlekua) eta ezinbestez zaindu eta babestuko dira gune edota elementu jakin batzuk: natura interesekoak, arkeologia interesekoak eta katalogaturiko eraikinak.

Arautze hau Garrantzi Komunitarioko Lekutzat hartu baino lehenagokoa da, eta mendiko gune batzuek baizik ez dute babes nahikoa. Landa erabilera hedatu da esparru guztira; halaz ere, horrek ez du esan nahi erabilera hori eta habitaten babesa beti bateragarriak direnik. Aisiarako erabilera ere ez da, behar bezala, alde jakin batzuetara mugatu. Halatan, badirudi beharrezkoa dela plangintza kudeaketarako prestatuko den Gestio Planera egokitzea, Txingudi/Jaitzubian egin den bezala.

▪ ***Lurralde Zatikako Planaren Aurrerapenak kontraesanezko proposamenak egin ditu naturguneen balioa aintzat hartzerakoan***

Hondarribiko landa giroan duen eraginagatik, bereziki kontuan hartzekoak dira Donostialdea-Behe Bidasoa Lurralde Plan Partziala, Nekazaritza, Basogintza eta Ingurumena Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala, EAEko Erreka eta Ibai Atlantikoen Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala eta EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.

LZPari dagokionez, badira ingurumen naturalaren hobekuntzarako proposamenak eta badira, halaber, beste arlo batzuetako proposamen batzuk, ingurumen horretan ere eragina dutenak. Lehenengoan artean daude “korridore ekologikoen” erakuntza (Gaintxurizketan eta Jaizkibel eta Jaitzubia arteko mazeletan), hiri inguruetakoa Guadalupe-Higer parkea eta “natura balioen kontserbazioa eta hobekuntza, Jaizkibel mendiko mazeletan. Bigarreni dagokienez, aipagarriak dira Amutetik itxuratu nahi diren “sarbideak”, Jaizkibel mendiaren hegoaldeko “ibilbide samurren sarea”, sorosaldeko “hiri-hedapenerako eremuak” eta Zubietako “enpresa-parkea”.

Interbentzio nahaste hau atzerapauso bat da ingurumenaren egungo egoera kontuan hartuz gero, kontraesanak sortzen baitira babestu eta aldi berean urbanizatu nahi diren hainbat gunetan. Halatan, paradigmaticoa da inolaz ere Gaintxurizketako korridore ekologikoaren egoera, azpiegitura mailako proposamen kopuru garrantzitsu bat egin baita aldi berean gune hartan. Dokumentuaren tramitazioa geldirik dagoenez, itxaropenak badira oraindik ere kontserbazioaren aldeko joeraren ikuspegitik, eta beraz dokumentu egokiago batek hartu beharko du inolaz ere oraingoaren ordea, edo oraingo dokumentua aldatu egin beharko da.

1997an berriro ekin zitzaion Gipuzkoako LZPen erredakzioari, oraingo honetan ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babespean. Ondoren LZP bakoitzaren erredakzioarekin (6 dira guztira) hasi ziren, beti ere, 1995 urteko aurrekariak jende aurrean jartzean jaso zituzten ekarpenak kontutan izanik. Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Planari dagokionez, lan berriek ez zuten aurrera egin eta geldirik geratu ziren azkenik.

Berriki Donostialdeko eta Bidasoa Behereko Lurraldearen Zatikako Planaren erredakzioa berrabiaraztea erabaki den arren, kontutan izan behar da lehenengo aurrerakia egin zenetik 6 urte pasa direla. Hori dela eta, aurrerakiaren dokumento berria idaztea erabaki da.

Lehen aurrerakia idatzi zenetik (1995) 2002 urterarte, garapen desberdinak eman dira hirigintzan. Horregatik, oinarritzko datuen eguneratzearekin batera, garai hartan egindako dokumentoaren eduki eta alderdiak berriz ere aztertu beharko dira. Dena den, orokorragoak diren planteamenduak eta gaiak baliogarriak direnez, dokumento berriaren oinarritzko materiala bezala txertatu ahal izango dira.

- ***Lurralde Plan Sektorialak zehatzak dira egoera ebaluatzeko orduan baina haren izaera ez da ezinbestez loteslea, lurraldearen antolakuntzarako beste tresna batzuk aintzat hartzerakoan.***

Nekazaritza, Basogintza eta Ingurumena Antolatze Lurralde Plana: Azpikategoriak zehaztu ditu Zoru Ez Urbanizagarrian (ZEUan), alde bat utzirik beste tresna batzuen bitartez babesturiko eremuak. Berez lotesleak ez diren arren, gogoan eduki beharko dira haren arauak udal plangintza onartzerakoan, gainerako Lurralde Plan Sektorialekin jokatu den bezala. Azpikategoria batzuk zehaztu ditu, hala nola "Balio estrategiko handiko nekazaritza-abeltzaintza" eremua (Arkollako aldea eta Jaitzubiko ibarra eta iparraldea), "Trantsizioko landa paisaia" (soroaldea), "Basoa" (Jaizkibel eta Jaitzubiko ibarreko alde bat), "Baso - Mendi Meatsa" (Jaizkibel mendiko gaina eta labarrak) eta Hondagarritasun eta Higagarritasun Maparen arabeko kategoriak (Jaizkibel).

LPS honen mugak bat datoz egungo egoerarekin (ez da harritzekoa ikusirik erabili den metodologia). Halaz ere, kontraesanak gerta daitezke udal plangintza aldatzeko proposamenaren, LPParen eta beste LPS batzuen helburuen aurrean, interbentzio garrantzitsuak hartu baitira aintzat ZEUKo esparru honetan. Jaizkibel mendiaren hegoaldeko mazelak, soroaldeko

landak eta Gaintzurizketako inguruak barne, ditugu kontraesan gehien aurkezten dituzten guneak.

EAEko Erreka eta Ibai Atlantikoen Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak udalerriko ur-korrante guztien ertzetako 100 metroko lur-zerrendak ordenatzen ditu. Aipagarria da bertan egin den sailkapena, ingurumen-osagarriaren arabera, ingurumen-babesa behar duten aldeak zehaztu direlako. Bi kategoria bereizten dira Hondarribiko kasuan: "Natura interes handiko eremuetako ertzak" (Txingudiko Baliabide Naturalen Babes eta Ordenaziorako Plan Bereziaren esparruaren barruan daudenak) eta "Landaretza ongi kontserbaturiko ertzak" (Txiplaoko errekan eta Putzuandiko errekan). Jaitzubiko arroan bideratu da antolakuntza molde hau. Araudi orokorra bideratuko da gainerako arroetan.

LPS honen argitan Hondarribian nabarmen azaldu den egoerari heldurik, azpimarratzekoa da landaretza ongi kontserbatu den ertz zatiak oso gutxi direla eta, beraz, ertz horiek biziki aldatu direla esan dezakegu ez bairik gabe. Balorazio hori, aldiz, oso mugaturik azaltzen zaigu, ez baititu erribera landaretza interesgarri bat ageri duten beste ur-korrante zati batzuk aipatzen. Bekoerrotako erreka eta, neurri txikiagoan, Ogallurretako erreka eta Idurmendietako erreka, aipa genitzake besteak beste horien artean.

Azkenik, EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko LPSak gutxienez 500 metroko lur-zerrenda hartzen du kontuan itsasertzaren eta mareen eraginpeko lurren tartea neurtzeko, alde bat uzten duela hirialdea, Itsasertzeko Jabetza Publikoa gizarte, ekologia eta baliabide naturalen ikuspegitik babesteko. Antolakuntzari begira, hainbat kategoria bereizi dira dokumentu honetan: "Babes Berezi Zehatza", "Babes Berezi Bateragarria", "Ekosistemen Hobekuntzarako Eremuak", "Eraberritu beharreko Eremu Hondatuak", "Basoa", "Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabal" eta "Erabilera bereziko Eremuak. Hiri hondartzak". Bereziki aipagarriak dira Babes Bereziko Eremuei eta labarren ondoko eremuei (labarraldeak dira eta giza jarduerak murrizteaz gainera landaretza kontserbatzeko neurriak aurreikusten dira haietan), eraberritu beharreko eremu hondatutzat (landa eta larreek okupatuak) hartuak baitira.

Gune horien egungo egoerari eta haiei begira eginiko proposamenei dagokienez, kontraesanak etor litezke abere-hazkuntzaren araberako erabileren edota Justiz-Txurtxipin golfa bideratzeko eskatu diren erabileren aldetik, ingurumena hobetu beharreko eremuak direlako eta ondoan zehazki babestu beharreko eremuak dituztelako.

BABESERAKO IRUDIEN GERIZAPEAN DAUDEN GUNE NATURALEN AZTERKETA BEREZIA

- **Garrantzi komunitarioko habitaten babesa lehenesten duen Gestio Plana du Jaizkibekek abian.**

Bi gune natural ditu Hondarribiak babeserako irudiren baten gerizapean: Jaizkibel mendia eta Jaitzubia eta Kostako behe-ibarrak. Hau da, udalerriak osorik hartzen duenaren erdia baino gehiago (%52).

Natura eta kultura ondare garrantzitsua du Jaizkibekek, Udalaren eta Udalaren gaineko instituzioen aldetik duen babesaren mailak erakusten duen bezala. Gainera, Garrantzi Komunitarioko Lekutzat hartu izan da eta haren kudeaketarako Gestio Plana ari dira lantzen, espazio horretako erabilerak antolatzeko. Zirriborroan dago plan hori une honetan eta helburu gisa aintzat hartu du funtsean barruan dauzkan garrantzi komunitarioko habitaten babesa. Arrazoi horrengatik sartu zen Natura 2000 Sarean:

- Habitaten eta espezie interesgarrien kontserbazioa iparraldeko mazeletan.
- Hegoaldeko mazeletako berezko basoaren eraberritzea.
- Paisaiaren kalitatea babestea
- Erabileren orientazio egokia eta bateragarritasuna
- Habitat naturalen kudeaketaren eta ondare balioen mantenuaren arteko bateragarritasuna
- Zientzia ezagutzaren hobekuntza
- Administrazioa, koordinazioa eta koherentzia gestioan
- Informazioaren hedakuntza
- Gestioaren jarraipena, ebaluazioa eta aldizkako berrikuspena

Plan honek xedaturikoaren arabera, lehen habitaten kontserbaziorako jarduerak azidaren ekin moderatua behar dute, alde batetik, txilardi higrofiloek eta *Deschampsia flexuosa* larreek iraun ahal izan dezaten. Era berean, belar atlantikoko larreen kontserbazioari begira, ez da artzaintza sakon bideratu behar. Bestalde, esfagnadien kasuan, onak dira noizbehinkako artzaintza jarduerak haien kontserbaziorako. Izan ere, landa eta larreen mantenturako (interes komunitarioko habitat dira horiek) artzaintza estentsiboa proposatzen du, inguruak eutsi ahal izango dion azidaren kopuru gorena zenbatekoa den adieraziko liguketen azterketak bideratu gabe diren arren.

Aldiz, haitzetako landaretza eta haltzadi-lizardiei (lehen habitatak biak) dagokienez, ez jardutea da neurria ezen, azterketaren arabera, landaretzaren klimaxa baitira beren esparruetan. Era berean, jarduerarik ez da aurreikusi baso habitaten kasuan ere (Kantauriko haltzadia, Kantauriko ameztiak, gaztainadi galo-iberiarrak, harizti azidofilo iberiar-atlantikoak –*Q. robur*–, eta lohietako sasiak), habitat horien arazo nagusia Jaizkibel mendia urte askoan soildu duten baso-suteak direla ziurtatuz. Bestalde, gunearen kalitatea aldizka eta azterketaren eremutik uraz beheiti miaztea proposatzen du planak erreka eta ibai-sareari loturiko landaretzaren kontserbazioari begira.

Proposamen hauen gainean, bidezko ikusi du Tokiko Agenda 21 honen erredakzio taldeak gestio plan honen orientazio nagusiaren inguruan gogoeta egitea, uste baitu bestela ulertu beharko liratekeela baldintza naturalen ez baizik eta giza aldakuntzaren ondorioz sortu diren habitat batzuk. Giza jardueren eraginez lehenetsi dira Jaizkibel mendiaren iparraldeko landak eta larreak bertako amezti eta askotariko basoen kaltetan, azken hauek bertako berezko landaretza ziren arren. Egun, askoz eremu txikiagoa dute espezie horiek.

Azkenik, aipatu beharra dago 1996 urteko abenduaren 24an onetsi zirela Hondarribiako planeamendua arautzen duten Arau Subsidiarioak. Baina bai Jaizkibel Garrantzia Komunitarioko Eremuaren aitormena (2004) bai eta EAeko Itsasertza babestu eta antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren behin betiko onespina, beranduago eman ziren. Hori dela eta, bie lotutako araudiak ez daude jasotak Hondarribiako Arau Subsidiarioetan. Dena den, Hondarribiako Hiri-Planeamenduaren Plan Orokorra gauzatzea aurreikusita dago eta bertan, aipatutako arloak txertatuko dira.

Ekainaren 30eko 2/2006 legeak, Hirigintza eta Lurzoruaren legeak, hiritarren parte-hartzea bermatzeko xedearekin (planen dokumentazioari atxikita joango diren programen adierazpenen bitartez adibidez), honakoa adierazten du 109 artikuluan: Hiri-planeamenduaren onspen orokorrean kompetentzia duen udalerrri orok, Hiri-planeamenduaren Aholku Kontseilua sortu behar du. Kontseiluak, bi helburu beteko ditu:

- Parte-hartzearen beharra bermatu
- Hiri planeamenduko tresnen adierapen eta onespenean laguntzea, zehazki, Plan Orokorriari lotutako zehaztapenak.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak Jaizkibelgo LICaren Kudeaketarako Plana gauzatzen ari da. Egun, oraindik berradorea da baina onespina lortzen

duen dataren arabera, planaren irizpideak Hondarribiako Hiri Planeamenduaren Plan Orokorrean txertatuak izan beharko dira.

- **Abere-hazkuntzaren jarduera eta esparruen arautzea, Jaizkibelen kontserbazioaren giltzarria**

Artzaintza ere proposatu du Gestiorako Planak antolaturiko lurraldearen alde handi batera zabalduko jarduera gisa, han eta hemen haren intentsitatea oso bestelakoa den arren. Teorian bideragarria eta praktikan agian emaitza onak ematen dituen arren, kontrakarrean dator metodo hau egungo egoerarekin ezen, kopuru aldetik haren garrantzia txikia den arren, berebiziko eragina baitu habitat batzuen ingurumen-kalitatean.

614 abelburu baizik ez dauden arren, itxiturak (zuhaitzak babesteko), sasien garbiketa eta fitoziden erabilera eskatzen ditu egungo gestioak. Suteen arazoa horren handia ez den arren, itxituren hausturak eta aziendaren emanak uren kalitatean eduki litzakeen eraginak argi asko erakusten digute abere-hazkuntzak eragina duela mendiaren ingurumenaren eta haren eraberritzearen kalitatean. Halatan, azienda kopurua txikixkoa den arren, mendi guztira zabaltzen da haren ekina.

Ebaluazio sakonago batean ebaluatu beharko lirateke zantzu hauek, eta gestio planean sarrera egin ondoren.

- ***Giza jarduerak eragin du Txingudiko paduren atzerapen historikoa, eta haiek eraberritzeko prozesu batek geldiarazi du galera***

Eremu handia okupatzen zuten padurek Txingudin (610 ha). 391,2 ha galdu ziren, giza jardueren eraginez haietako gehienak (380, 9 ha). Laborantzako lurren sorrera eta hiri-egituraren zabaltzea izan ziren funtsezko arrazoiak. 130 ha-ko eremu hartzen dute babesturiko padura-sailak. Ibilgukoekin batera harturik, etorkizunean behialako padura naturalen erdiek baino gehiagok iraungo dute, azalera horietako batzuek padura ez baizik eta beste erabilera batzuk hartuko dituzten arren.

Halatan, nekazaritza izango da du Hondarribiko Plan Berezian eremu handiena hartuko duen erabilera: Babes Bereziko lurztat hartu dira 40 ha eta Nekazaritzaren Babeserako lurztat 48 (ha hauek marenen kotaren azpian daude gehienak, haien barruan behe-ibarretako alde batzuk ere kontuan

hartu diren arren). Gainera, babesturiko esparrutik kanpo, badira mareen edo hezegune naturalen kotaren azpian geratzen diren lurrak, baina oraingoz haietan hiri erabilerarik bideratu ez den arren, okupatzeko aukera aurreikusia da dagoeneko (Zubieta-Mendelu). Banaketa hau akordio baten eta zoruaren erabileren artean lortu nahi den oreka baten fruitua den arren, honek ez du esan nahi arestian aipatu dugunaren erreferentzia galdu behar denik.

- ***Txabolen ugaritasuna, urbanizazio eta azpiegituren kanpo-presioa eta eskasiak antolakuntzan, paduren inguruetakoa arazoak***

Eremu babestuetako barne-erabileren artean (eta inguruko beste eremu batzuetara zabaltzen da halaber arazo hau), bereziki aipagarria da laborantza erabilerarako txabolen eragina. Arau Subsidiarioetan ere jaso da aspektu hau; haren esanetan laborantzarako eraikuntza molde eragabe honek txabola-paisaia areagotzen du eta arazo nagusietako bat da eremu horietan. "Jaitzubia eta Kostako behe-ibarretako laborantza babesteko eremuak antolatzeke eta ingurumenean integratzeko programari" begira proposatu den Plan Bereziak irtenbidea eskainiko dio agian arazo honi, baina ezin bideratuko litzateke esparru horretatik kanpo. Bestalde, guztiz zehaztu beharko litzateke erabaki politikoa, arlo honetan neurriak hartzerakoan.

Babesturiko eremuen ondoan dauden eremuetan eragina duten kanpo-faktoreei dagokienez, bereziki azpimarratu beharko genuke azpiegiturek eta urbanizazioak bideratzen duten presioa. Etorkizunean gero eta handiak izateko joera ageri dute faktore hauek: N-1 errepidearen zabalkuntza eta biribilgune goratua, eta hurbileko sektoreen urbanizazioa.

Ingurumen-inpaktuaren eragina arinduko duen tarteko eremu bat ez bada itxuratzen eta berezko araudi batez hornitzen, guztiz mugaturik geldituko da eraberritzeen poderioz erdietsiriko ingurumen-kalitatea, areagotu egingo da habitat horien izaera bakana eta handiagotu egingo da espazio naturalen arteko lotura eza.


INTEGRAZIO ETA BABES KOMUNERAKO FAKTOREAK NATURA GUNE BABESTUETAN

- ***Natura guneak isolarazten dituzte oztopo fisikoek eta finkamenduek***

Habitaten eta basoko organismoen populazioen apurtze prozesuak, ingurumen guztian gertatzen direnak, nabari ageri dira era berean Behe Bidasoako natura gune babestuetan. Isolamenduaren eta natura gune naturalen arteko lotura ezaren eraginez, bioaniztasun-uharteak sortzen dira han eta hemen, populazioak ahulduz eta espezie askoren mugikortasuna eta hedakuntza mugatuz. Areagotu egiten da gainera "ertz efektua", habitat eta populazioen garapen naturala aldarazten duten jardueren menpean (urbanizazioa, industria, azpiegiturak...) gertatzen baita askoz errazago "uharte" horien perimetroa.

2005. urtean IKT, SA enpresak Eusko Jaurlaritzarentzat "Euskadiko Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea" izenpean eginiko azterketak proposatu zuen, hain zuzen ere, Natura 2000 Sarean dauden guneetako baso habitaten arteko lotura zehaztea, eta gune horien artekoak ditugu Jaizkibel eta Aiako Harria. Kasu honetan, korridore ekologiko bat antolatzea proposatu zuten Gaintxurizketako gainean barrena, eta tentsioak azaldu dira han egungo eta etorkizunerako aurreikusitako azpiegituren eskutik.

1. Planoa Jaizkibel-Aiako Harria korridore ekologikoa



Iturria: IKT, "Euskadiko Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarea". 2005

- ***Natura guneen arteko lotura-guneak dira behe-ibarrak.***

Hondarribiko udalerrriaren barruan, bertako soroaldeak batzen ditu bi natura gune nagusiak (Jaizkibel eta Jaitzubiko padurak). Soroalde hori giza jardueren menpean dagoen arren, funtsezkoa da egoera horretan errekek jokatzeko

duten lotura-papera. Behe-ibar horietako batzuetan ongi kontserbatu da berezko landaretza eta ongi betetzen dute horrenbestez korridore ekologiko gisa duten egitekoa. Hona hemen zein diren, jakinik egoera hau xeheago aztertu beharko litzatekeela.

- Ogallurretako erreka behe-ibarra, ongi kontserbaturiko landaretza ageri duena, hala erreka ertzetan nola haietatik goratzen diren mazelatan.
- Erdikoerrotako haltzadia, Bekoerrotako erreka eta Ipiztikuko erreka bat egiten duten gunean dagoena. Jaitzubiko padurekin lotzen da zuzenean.

▪ ***Lege babesa ez da behar adinako ez baita Txingudiko padurak eta Jaizkibel Natura 2000 Sarean sartu ondoren bete beharreko araudia aintzat hartu***

Jaizkibel mendia eta Txingudiko padurak ez daude EAeko Natura Gune Babestuen Sarean eta ez dira, beraz, haietan Babesturiko Biotipo edo Natura Parkea bezalako irudien ondoko arauak bideratzen. Paduren kasuan, antolakuntzarako tresna orokorrez gainera (Udala eta EAE), Plan Berezi baten araupean daude eta Ramsar zerrendan sartuak dira. Ezaugarri komun bat dute bi natura guneek arlo honetan: Natura 2000 Sarean daude biak.

Garrantzi Komunitarioko Lekuen sailen barruan dauden natura gune hauek ez dute Gestio Planik, ez onarturik eta are gutxiago jardunean, eta horrenbestez une oro sentitzen da halako babes berezitik ez dutela eta hasieran bateraezin diruditen erabilerak bideratzeko modua badagokeela. Paduren kasuan –gogoan har bedi GKLa izateaz gainera Plan Berezi batez arautzen direla–, garbi dago Plan Bereziaren arau-esparrua hirigintzaren esparrura mugatzen dela eta hartatik kanpo geratzen direla beste jarduera batzuk, hala nola ehiza, arrantza, itsaskitan aritzea, nabigazioa,...

Halatan, Gestio Planak onartu arte legearen hutsak eta zehaztasun ezak dakartzaten arazoak atzemango dira gune haien babes erregimenari eusterakoan. Egoera honek hondagarritasun handia eta arriskua dakartza, bideak urra baillitezke aldaketa batzuetarako eta babes hori horren irmoa ez izateko.

4.2 Hondarribiko ingurumena jasangarritasunaren ikuspegitik. Laburpena

Hondarribiko aniztasun ekologikoa
<ul style="list-style-type: none">• Estuarioa, landazabal eta mendia, unitate adierazgarriak• Egungo landaretza, giza jardueren ondorioa, hariztia eta ameztia nagusi ziren berezko landaretzaren gainean• Giza faktoreak guztiz erabakigarriak izan dira ekosistemen aldakuntzan• Fauna espezieen zerrenda luzea katalogatu da, baina arriskuan daude habitatak aldatu direlako• Natura intereseko gune nagusiak<ul style="list-style-type: none">▪ Jaizkibel mendiaren iparraldeko mazela eta itsas aurreko aldea▪ Jaizkibel mendiko gaina▪ Jaizkibel mendiaren hegoaldeko errekek▪ Jaitzubiko erriberak eta padurak▪ Ur gezako hezegune txikiak
Lurralde antolakuntzarako tresna orokorren araberako antolakuntza eta babesa
<ul style="list-style-type: none">• Indarrean dagoen udal plangintzak ez ditu babeserako estatus berriak jaso eta ikuspegi desberdina du bere helburuetan• Lurralde Plan Partzialaren Aurrerapenak kontraesanezko proposamenak egin ditu natura guneen balioa aintzat hartzerakoan• Lurralde Plan Sektorialen ebaluazioa nahikoa den arren, plan horien izaera loteslea ez denez, bestela joka dezakete beste antolakuntza tresna batzuek
Babeserako irudien gerizapean dauden natura guneen azterketa berezia
<ul style="list-style-type: none">• Gestio Plan bat lantzen ari dira Jaizkibelerako. Garrantzi komunitarioko habitaten babesa lehenetsiko da hartan.• Abere-hazkuntzaren jarduera eta esparrua arautzea, Jaizkibel mendiaren kontserbazioaren giltzarria• Giza jarduerak eragin du Txingudiko paduren atzerapen historikoa, eta haiek eraberritzeko prozesu batek geldiarazi du galera• Txabolen ugaritasuna, urbanizazio eta azpiegituren kanpo-presioa eta eskasiak antolakuntzan, paduren inguruetako arazoak
Integrazio eta babes komunerako faktoreak natura gune babestuetan

- Natura guneak isolarazten dituzte oztopo fisikoek eta finkamenduek
- Natura guneen arteko lotura-guneak dira behe-ibarrak
- Lege babesa ez da behar adinakoa ez baita Txingudiko padurak eta Jaizkibel Natura 2000 Sarean sartu ondoren bete beharreko araudia aintzat hartu

5. INGURUMEN BEKTOREAK: LABURPENA

5. INGURUMEN BEKTOREAK: LABURPENA

5.1 Hondarribiko Ingurumenaren gaineko gogoetak jasangarritasunaren ikuspegitik

5.1.1 Jasangarritasunaren azterketa: ura

2000. eta 2007. urteen artean fakturatu den ur-kontsumoa %9,16 gutxitu da Hondarribian (biztanleria-kopuruak %8,73 egin du gora). Beraz, berariazko ur-kontsumoak behera egin du.

Erabilerari dagokionez, berriz, 2000. eta 2007. urteen artean, Hondarribian etxeko kontsumoa %12,14 gutxitu da, eta etxekoa ez dena %12,6. Biztanle bakoitzaren ur kontsumoa eguneko 135,7 litro izan da 2007 urtean.

Endara urtegiaren edukierak ase egiten du eskari hori, idorte garaietan izan ezik. Jaizkibelgo ura baliatzen da horrelakoetan.

EAEko ibaien egoera ekologikoaren jarraipena egiteko sareak 2004. urtean, 2003an eginiko azterketetan oinarriturik, argitaratu zuen txostenaren arabera, Bidasoako unitate hidrologikoan molde desberdineko isuriak atzeman dira, Jaitzubiko errekan batez ere, bertan isurtzen baitute alde horretako industria batzuek. Inguru horretan metalak tratatzeko eta janariak maneatzeko industriak daude, eta hiri hondakin-uren eta antzekoen isuriak ere atzeman dira ur horietan. Geroago, Txingudi Zerbitzuek helarazi diguten informazioari esker jakin ahal izan dugunez, gainditu ahal izan da egoera hura, 2004. urtean igaro baitziren Jaitzubiko errekan ordura arte egiten ziren isuri ia guztiak Jaitzubiko kolektore berrira, eta 2005eko ekainean hasi zen bere isuriak kolektorerara egiten errekan isurtzen segitu zuen enpresa (ez zituen ordura arte kolektorean isurtzeko bete behar ziren baldintzak bete). Egun kolektorearekin lotzear daude hiri hondakin-ur eta antzekoen isuri batzuk, baina ez dira horiek Mankomunitatearen ardurapekoak, uraren hornidura eta saneamendurako sistema pribatu batez hornituriko urbanizazio pribatu batenak baitira.

Azkenik, modu positiboan hartzen da aintzat Txingudiko Zerbitzuak bideratzen ari diren ur gestioa, begi bistakoak baitira eginiko hobekuntzak, hala Irun eta Hondarribiko udalerrietan eskaintzen duten zerbitzuan nola eskualdeko kontinente eta itsasbazterreko uren kalitatean. Hainbat lan egiten ari dira era berean hezkuntzaren giroetan ikasleei uraren zikloa erakutsirik (Lehen

Hezkuntzatik aurrera). Auzo Elkarteek ere bisitaldiak egin ditzakete ziklo horren berri jakiteko.

5.1.2 Jasangarritasunaren azterketa: kutsatzaile izan daitezkeen lurzorua

Hondarribiko udalerrian, kutsatzaile izan daitezkeen jardueri eutsi eta eusten diete zoru batzuek. Halarik ere, jarduera horiek gutxi dira eta txikia da halaber okupatzen duten eremua.

Gune horietan ez da laginketa eta azterketa kanpainen bidezko ikerketarik bideratu eta, beraz, ez dakigu haietan gai kutsatzailerik dagoen eta halakorik bada zer kontzentrazio mailatan dauden azterturiko zoru horietan.

Zoruaren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarako lege berriak (1/2005 Legeak) arautzen du zoruaren kalitatea ezagutzeko eta kontrolatzeko bidea. Eta, hain zuzen ere, bide horretatik jo beharko da 17. artikuluan aipatzen diren gorabeherak gertatzen badira. Kutsatzaile izan daitezkeen jardueri eutsi dieten edo eusten ari zaizkien guneetan garatu beharreko jarduerekin lotuak dira gorabehera horiek: jardueraren zabalkuntza, lurrak mugitzeko proiektuen exekuzioa, jarduera betikoz amaitzea, zoruaren kalifikazioaren aldaketa, edo kutsagarria izan daitekeen jarduera baten garapena.

5.1.3 Jasangarritasunaren azterketa: energia

Kontsumo elektrikoari dagokionez, bereziki aipagarria da kontsumoaren gorakada zerbitzuen sektorearen aldetik (ostalaritza da nagusi sektore honetan): %14 hazi da 2002. eta 2004. urteen artean.

Ez berriztagarriak ditugu erabiltzen diren energia-iturri gehienak.

Modu positiboan hartu dira aintzat Udalak energiaren eraginkortasun maila hobetzeko bideratu dituen jarduerak. Bereziki aipagarriak dira argiteria publikoaren energiaren eraginkortasuna hobetzeko bideratu diren jarduerak (fluxu-erreduktorez hornitua da argiteria publikoaren %90).

5.1.4 Jasangarritasunaren azterketa: hondakinak

Ondoko taulan jaso da birziklaiaren portzentaien bilakaera azken urte hauetan, zaborte giraturiko hondakin kopuruen aldean:

3. Koadroa

	2000	2001	2002	2003	2004
% Hondakin birziklatuak	%17,00	%22,54	%26,08	%26,65	%27,64

Eta hona hemen sorturiko eta birziklaturiko hondakinen kopuruak biztanleriaren bilakaeraren argitan:

4. Koadroa

Kg/biz. /urte	2000			2001			2002			2003			2004		
	Birziklatu	Zabortegei a	GUZTI RA	Birziklatu	Zabortegei a	GUZTI RA	Birziklatu	Zabortegei a	GUZTI A	Birziklatu	Zabortegei a	GUZTI A	Birziklatu	Zabortegei a	GUZTI RA
Etxeeta ko hondaki nak	57,84	402,23	460,08	61,78	393,25	455,03	77,24	402,65	479,89	88,55	397,28	485,83	108,93	393,67	502,60
RICIA	43,89	70,47	114,36	68,62	54,85	123,47	77,74	36,89	114,63	68,97	40,22	109,19	65,73	50,93	116,66
EEH	0,00	33,34	33,34	0,00	29,39	29,39	0,00	35,77	35,77	32,70	32,70	65,40	0,00	28,86	28,86
GUZTI A	101,73	506,04	607,77	130,40	477,49	607,89	154,98	475,30	630,28	190,22	470,20	660,42	174,66	473,47	648,12


Aurkezturiko informazioa aztertu ondoren, hona hemen ohar jakingarri batzuk:

- ❑ Urtetik urtera ari da hondakin birziklatuen kopurua emendatzen. 2004. urtean sorturiko hiri hondakinen %27,6 birziklatu ziren Txingudi eskualdean. Bestalde, arin baina emendatu dira halaber zabortegiraturiko hondakinen kopurua. 2006 urtean jasotako hondakin guztien %31,17 berreskuratu da.
- ❑ Edukiontzia berdean pausatzen diren etxeke hondakinen osagai nagusiak dira maneatu gabeko janari hondarrak. Izan ere, arrazoiak arrazoi, egiaz kontsumitzen dena baino gehiago erosteko joera dago alor horretan.
- ❑ Hierarkia Komunitarioaren printzipioak lehentasuna prebentzioari ematen dion bitartean (birziklaia, konpostaia eta energiaren erabilera zuhurra datoz ondotik), argi ikus daiteke Txingudi Eskualdeko Hiri Hondakinen Plan Integralean (TEHHPI) murrizte eta berrerabiltze printzipioak (prebentzioari zuzenean lotuak biak) ez direla kopurutan neurtzen eta ez direla behar bezain zehatzak.
- ❑ Birziklaia sistemak ez du sorturiko multzo osoa bere gain hartzen (muga tekniko, kostu eta abarren ondorioz). Gipuzkoako gorenena da Txingudin birziklaturiko portzentaia. Gorakada garrantzitsua izan da gainera, portzentaia nabarmen emendatu baita hondakinen guztizko kopuruaren aldean, eta betetzen ari dira TEHHPIak 2016 aurreikusitako helburuak eta Europako Batasunean indarrean dauden eta egongo diren helburuak. Hala eta guztiz ere, hobetzeko aukerak daude betiere, kontuan hartzen badugu Europako herri aurreratuenen egoera, %40ko maila gainditzen baita horietan (Belgika, Austria eta Holanda, besteak beste).

EUROPAKO BATASUNEN HONDAKINEN KUDEAKETA

WASTE MANAGEMENT IN THE EU

Grezia
Irlanda
Erresuma Batua
Italia
Portugal
Espainia
Finlandia
Frantzia
Luxenburgo
Belgika
Austria
Alemania
Suedia
Herbehereak
Danimarka



% zabortegiraturiko hondakinak	% hondakin birziklatuak/konpostatuak	% hondakin erreak	
--------------------------------	--------------------------------------	-------------------	--

- Bidasoa-Txingudiko Eskualdean berreskuratzen ez diren hondakinak, gaur egun, San Markoseko zabortegira eramaten dira baina 2008ko martxoaren 31tik aurrera zabortegia behin betiko istea aurreikusten da. Apiriletik aurrera nahiz eta hondakinak San Markosek duen transferentzia estazioan konpaktatuko diren, azkenik Beasain, Azpeitia eta Zarautzeko zabortegietara bideratuko da urteko sortzen den kopuru handiena (maiatzaren hasieran Bizkaia eta Gipuzkoako LLHHkoetako Foru Aldundiek sinatutako hitzarmenari jarraiki, urteko 25.000 tona inguru Bizkaiko zenbait zabortegietara bideratuko da). Errauste planta martxan jartzean, gaika jasotzen ez diren eta konposta egiteko erabiltzen ez den kopurua errauste plantara eramatea aurreikusten da.
- Eskualdean energia berreskuratuko duen errauste planta bat egokitzeko hartu den erabakiari dagokionez, kexuak entzun daitezke oraindik ere biztanle sektore batzuetan, haren aldeko informazioan ahalegin handiak egin diren arren (komunikazioan, informazio etengabea web orrialdean, hitzaldiak, eta abar). Egun, 2008, errausketa-planta Donostiako Zubieta auzoan eraikiko dala aurreikusten da.

- Eraikuntza eta Eraiste Hondakinei dagokienez, San Nartzisoko H.B.A.an pausatzen dira lan txikietan sorturikoak. Haien amaierako helmugan, zaborteziak estali eta egokitzeko erabiltzen dira, bigarren mailako material gisa. Lan handietan sorturiko hondakinei dagokienez, ez da batzuetan haiekin zer gertatuko den jakiten. Kontrolik gabe pausatzen dira batzuetan gunen batean edo bestean, eta ez da haien kopuruei buruzko daturik izaten. Ez dago arlo honetan ari diren eragile guztien jarduerak koordinatuko dituen lurralde plan integralik (kontrola eta jarraipena ez dira honetan koordinatzen). Urratsak ematen ari dira egoera hau hobetzeko.

5.1.5 Jasangarritasunaren azterketa: atmosfera

Hondarribian ez da emisioen inguruko ikerketarik, atmosferan isurtzen den kutsatzaile-kopurua eta kutsatzaile motak baloratzeko. "EPER Euskadi" erregistroan zenbait enpresa daude, egiten dituzten emisioengatik.

Eskualdean inmisio-mailak neurtzeko bi kabina daude: bata, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Osasuneko Unitatearenak, PM₁₀ izenekoak (partikula handiak) eta metal astunak erregistratzen ditu; eta besteak, Euskal Autonomia Erkidegoko Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarearenak, SO₂, NO, PM₁₀, CO, O₃ eta NO₂ kutsatzaileak. Biak Irungo udalerrian daude eta erregistratutako datuak epe laburrari dagozkie.

Beraz, pentsatzen dugu, informazio gutxi dela baloratzeko modu fidagarrian Hondarribiko airearen kalitatearen egoera.

Eskualdeaz gaindi dagoen informazioak, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen estrategiaren 2003ko Adierazleek emandakoak, adierazten du EAEn garraioaren sektorea dela negutegi-efektuko gas-emisioan, proportzioan, gehien hazi dena. Azken hamarkadan, industriaren gas-isurketa %25 murriztu da, eta garraioaren sektorearena, berriz, %72 hazi da (petrolioderibatuen erreketza-prozesuak eragindako isurketak). Etxebizitza-sektorearen emisioa, energia-kontsumoarekin lotua, %34 hazi da eta hiri-hondakinena %30.

EAEko Ingurumenaren Egoera 2004ko dokumentuak, IHOBek argitaratua, honako hau dio: EAEn negutegi-efektuko gasen emisio-kopurua oso handia da oraindik ere, eta Estatu espainiar osorako Kiotoko Protokoloan

hitzartutakoaren oso gainera dago kopurua (%15 gehiago), 2008-2012 eperako aurreikusitakoa.

5.1.6 Jasangarritasunaren azterketa: zarata

Aireportuko jarduerak eragiten duen hotsari dagokionez, udaletxeak adierazi du ez duela herritarren kexarik jaso, hegazkin-kopurua handia ez delako bertan ibiltzen dena eta, gainera, gaur egun eragiten duen hotsa herritarrek onartuta dutelako. Kexa formalik jaso ez arren, aireportuaren ondoan bizi diren bizilagunen ezinegona hautematen da.

Herriko erdialdeko zenbait kaletan eta festa-garaian, jende asko biltzen denez (bai bertakoa, bai aisialdirako etorritako turistak), hots-maila handi samarrak eragiten dira, udaletxeko teknikariek egindako analisi kualitatiboaren arabera. Baina ez da bereziki arazo-sortzaile, ezta jasangaitza ere.

Hondarribian ez da, beraz, ikuspegi kualitatibotik arazo handirik hauteman, ingurune-hotsari dagokionez orokorrean, baina bai ordea aireportuak sortzen dituen hotsen inguruan, batez ere Amute auzoan.

. Ikuspegi kuantitatiboari dagokionez, ez dago udalerrri-mailan azterketa sakonagoa egiteko nahiko informaziorik.

Ostalaritza-establezimenduak eta aisialdi-jarduerak instalatzea, zabaltzea eta martxan jartzea arautzen duen Udal Ordenantza bat bada, establezimenduen kanpoaldean eta inguruko etxebizitzetan baimenduta dauden gehieneko hots-mailak ezartzen dituena. Beharrezkoak diren kontrol-sistemak zein diren ere ezartzen du.

5.2 Hondarribiko ingurumen bektoreak, jasangarritasunaren ikuspegitik.

Ura
<ul style="list-style-type: none">• Etxeko ur-kontsumoaren ratioa 2007. urtean 135,7 litro/biztanleko/eguneko da. 2000-2007 epean ur-kontsumoak %9,1 egin du behera, eta populazioa %8,7 hazi da.• Erabilerari dagokionez, aipatzeko modukoa da etxeko kontsumoa %12,1 jaitsi dela, eta etxekoa ez den ur-kontsumoa %12,6 murriztu da.• 2004-2007 urteetan udal kontsumoak gora egin du %1,07.• Endarako urtegiak duen bolumen-gaitasunak eskaria betetzen du, euri gutxi egiten duen garaian izan ezik, eta orduan Jaizkibelgo hartuneetara jotzen da. Hornikuntzarekin zerikusia duten arazoak konpontzeko beharra hauteman da, erreserba berriak aurkituta eta azpiegitura gehiago jarrita.• Endarlatzako estazioetako, Bidasoa ibaiaren estuarioko eta itsasertzeko zonaldeko uren egoera ekologikoa ona da, eta Jaizubiko estazioko uren egoera ekologikoa, berriz, txarra da. Saneamendu-Planaren barruan azkenaldian egindako jardueri esker, datozen urteetan hobera egingo duela aurreikusten da.• Txingudiko Zerbitzuak "eskualdeko hornikuntza sarea arlokako banaketa proiektua" aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzari. Honen helburua, eskualdeko sarea 16 zonalde edo sektoretan banatzea eta sistema informatiko batetara konektatuta egongo diren 29 kontrol-punturen ezarpena suposatuko du (sistema informatikoan Hondarribiko eta Irungo hornikuntza sarearekin lotutako 300 Km inguruko hoditeria azalduko da). Proiektu hau 2008 urte amaierarako martxan egongo da.• Mankomunitateak alarma sistemak ezarriko ditu gainezkaideetan. Horrela, kolektorea ataskua badago eta ibaira isurtzen hasiz gero, modu azkar batean antzeman ahal izango da arazo hau eta beharrezko neurriak hartuko dira.• Nabarmena da Irun eta Hondarribia udalerriei eskainitako zerbitzuak hobera egin duela, bai eta eskualdeko ur kontinentalen eta itsasertzeko uren kalitateak ere hobera egin duela.
Lurzorua
<ul style="list-style-type: none">• Ez dago informazio nahikorik udalerriko lurzoruaren kalitatearen arloan arazoak dauden edo ez baloratzeko. Udaletxeko iturriek adierazi dute udalerrian ez dagoela kutsadura-arazorik lurzoruaren.• Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko lege berriak lurzoruaren kalitatea nolakoa den jakiteko eta kontrolatzeko zein prozesu eman behar den arautzen du, eta prozedura hori abian noiz jarri behar den ere bai.

- Eusko Jaurlaritzak 2007ko azken Gobernu Kontseiluan, *Euskal Autonomi Erkidegoko Lurzoru Kutsatuen 2007-2012ko Plana* onetsi zuen. Plan honen bitartez, hiritarrek lurzoru garbi eta kalitatezkoaz gozatzeko duten eskubidea bermatu nahi da.

Energia

- **Kontsumoei** dagokienez, **Kontsumoei** dagokienez, 2002-2004 epean **kontsumo elektrikoa hazi egin da** sektore guztietan. Epe horretan etxeetako kontsumoak eta industriako kontsumoak gora egin du, %9 eta %3, hurrenez hurren (kontratu-kopurua ere gehitu da, %8 eta %1), **zerbitzu-sektorearen** kontsumoak ere %14 egin du gora (kontratuak %5 gehitu dira). 2002-2006 epean **kontsumo elektrikoa hazi egin da** sektore guztietan, industria sektorean izan ezik non %24,23 jeitsi da kontsumoa. Orokorrean, 2004 eta 2006 urteen artean fakturatutako energiaren kontsumoa %24,4 igo da.
- Erabiltzen diren energia-iturriak **batez ere ez berriztagarriak dira**. Oso eskasak dira energia berriztagarrien iturriak eta gainera danak pribatuak dira, hau da, ez dago udal instalaziorik energia berriztagarriekin.
- Hondarribiko udalak eta EVEk (Energiaren Euskal Erakundea) 2006ko uztailaren 10an hitzarmen bat sinatu zuen udalerrian energiaren kontsumo gutxitu eta aurrezpena sustatzeko asmoz elkarrekin mota ezberdinetako ekintzak aurrera eramateko.
- **Balorazioa positiboa** da udalerrian **eraginkortasun energetikoa** hobetze aldera egin diren **jardueren** inguruan. Aipatzeko modukoak dira argiteria publikoaren eraginkortasun energetikoa hobetze aldera hartutako neurriak.
- Egun, Ihobek zentralizatzen ditu udalerrien energia datu eskaera (Ihobek egiten du eskaera eta gero honek udalerriri bakoitzari dagozkion datuak bidaltzeaz arduratzen da) baina horretarako, Ihobek jarri duen baldintza da udalerrira *Udalsarea 21*en kide izatea. Hori dela eta, Hondarribia Udalsarea 21en sartzen denean, datu horiek lortzeko erraztasun handiagoa izango du.

Hondakinak

- Urtetik urtera gero eta hondakin **gehiago birziklatzen** da. Dena dela, zabortegirako diren hondakin-kopuruak ere gora egin du. Edukiontzi berdean biltzen diren **etxeko-hondakinaren osagai** nagusia sukaldatu gabeko janari-hondarrak dira. Txingudiko Zerbitzuak elkartekoek adierazi dute kontsumitzen duguna baino gehiago erosteko joera dagoela. 2006 urtean jasotako hondakin guztien %31,17 errekuperatu da. Portzentai honen barruan, konpost egiteko erabili diren hondakinak eta berziklatutako hondakinak (%29,51) sartzen dira. Era berean, hondakin berriztagarriak hartzen ditu kontutan, ur haraztegitik etorritako loiak hain zuzen ere (%1,69).
- **Europako Erkidegoko Hierarkiaren printzipioak** prebentzioari ematen dio lehentasuna (ondoren birziklatzeari, konpostari eta energiaren aprobetxamenduari), eta Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinaren Plan Integralean (PIRUAT), berriz, hondakin-kopurua **murrizteko eta hondakinak berriz erabiltzeko helburuak** (prebentzioarekin lotuta daude) ez daude zenbatuta eta, beraz, ez daude bat ere zehaztuta. Hondakinak sortzearen prebentzioan badugu oraindik zer hobetua. Nahiz eta Txingudin **birziklatutako hondakinaren ehuneko**a Gipuzkoako handiena izan, badago zer hobetua oraindik. Eskualdean energia berreskuratze **erraustegi**-planta bat eraikitzearen inguruko erabakiaren inguruan, herritarren artean kexak izan dira, informazio argia ez delako eman eta erabakia hartu aurretik ez delako debaterik izan. Hori dela eta protesta mugimendu bat sortu da. Gaur egun, erraustegi-planta Donostako Zubieta auzoan eraikitzea dago aurreikusia.
- Ez dago **eraikuntza- eta eraispn-hondakin**en arloan lurralde-plan integralik hondakinaren kudeaketarekin zerikusia duten eragileen jarduera guztiak koordinatzeko (ez dago kontrolik, ezta jarraipen koordinaturik ere). Horren inguruan, hobetze aldera egiteko zenbait urrats ematen ari dira.
- Bidasoa-Txingudiko Eskualdean berreskuratzen ez diren hondakinak, gaur egun, San Markoseko zabortegira eramaten dira baina 2008ko martxoaren 31tik aurrera zabortegia behin betiko istea aurreikusten da. Apiriletik aurrera nahiz eta hondakinak San Markosek duen transferentzia estazioan konpaktatuko diren, Beasain, Azpeitia eta Zarautzeko zabortegietara bideratuko da tona kopuru handiena, urteko 25.000 tona inguru Bizkaiko zenbait zabortegitara bideratuko den bitartean (Gipuzkoako LLHHkoari zerbitzua emango dion errauste planta martxan jartzen den arte).
- Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak momentu honetan onarpen fasean dagoen Gipuzkoako Hiri-Hondakinaren Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana gauzatu du. Planean 2 Garbigune eta Konposta egiteko Planta bat aurreikusten dira Bidasoa

zonalderako. 2016 urterako eskualdean orotara 3 Garbigune egongo dira, horietako bat, Arasoko Garbigune berria izango delarik, 2007ko abenduaren 10ean eraikitzen hasi zena.

- Hondakin arriskutsuak eta sanitarioen inguruan lortutako datuen arabera, 2001 eta 2007 urteen artean eman den eboluzioa positiboa izan da.

Atmosfera

- EPER Euskadi erregistroak enpresa gutxi batzuk baino ez ditu biltzen, emisioen arabera aukeratuta, eta Hondarribian ez da **emisioen** inguruko ikerketarik, atmosferan isurtzen den kutsatzaile-kopurua eta kutsatzaile motak baloratzeko. Eskualdean **inmisio-mailak** neurtzeko bi kabina daude: bata PM₁₀ partikulak (partikula handiak) eta metal astunak erregistratzen ditu, eta besteak SO₂, NO, PM₁₀, CO, O₃ eta NO₂. kutsatzaileen mailak. Biak Irungo udalerrian daude eta ditugun datuak denbora epe laburrari dagozkio. Beraz, pentsatzen dugu, **informazio gutxi dela** modu fidagarrian **baloratzeko** Hondarribiko **airearen kalitatearen** egoera.
- *EAEEn negutegi-efektuko gasen emisio-kopurua oso handia da oraindik ere, eta Estatu espainiar osorako Kiotoko Protokoloan hitzartutakoaren oso gaineratik dago kopurua (%15 gehiago), 2008-2012 eperako aurreikusitakoa.*

Ingurune-hotsa

- **Aireportuko** jarduerak eragiten duen **hotsari** dagokionez, udaletxeko arduradunek adierazi dute ez dela herritarren kexa formalik izan. **Erdialdeko** zenbait **kaletan** eta **festa-garaian hots-maila handi samarrak** sortzen dira, udaletxeko teknikariek egindako azterketa kualitatiboaren arabera. Baina ez da bereziki arazo-sortzaile, ezta jasangaitza ere. Hondarribian ez da, beraz, ikuspegi kualitatibotik arazo handirik hauteman orokorrean (bai ordea zehazki aireportuaren gaian), ingurune-hotsari dagokionez.
- Ez **daukagu eskura informazio nahikoa azterketa sakonagoa** egiteko.

6. HONDARRIBIAREN DIAGNOSTIKOA: ZEHAZTU DIREN JOEREN INGURUKO ONDORIOAK

Eskura daukagun informazioa lortu eta aztertu ondoren, zenbait hausnarketa-ondorio atera ditugu, egun Hondarribiko udalerrian dauden joeren inguruan:

- Azken 25 urteetan, 65 urtetik gorako biztanleak %50 ugaltu dira eta 19 urtetik beherakoak, berriz, ia erdira gutxitu dira. Beraz, joera nabaria da, populazioa zahartzen ari da, Gipuzkoako gainerako lurraldean eta EAEn gertatzen ari den bezala.
- Kezka dago adinik txikienetako hezkuntza-ekipamenduetan aurreikusitako beharraren inguruan. 2010 urtean martxan jarriko den haurtzaindegi berri bat aurreikusten da.
- Ikuskizun handi samarrak antolatzekeo ekipamendu gabezia hauteman da.
- Gizarte-ongizateko zerbitzuen eskaerak gora egin du, eta pertsona helduentzako egoitzetan ez dago leku nahikorik.
- Kirol-ekipamenduen eskaintza bikaina.
- Egungo osasun zentroaren instalazioak ez dira egokiak. Hauen berrikuntza aurreikusten da.
- Bizitegitarako lurzoruari dagokionez, erabilera nagusia, dentsitate txikikoak asko dira eta jatorriko herrigunearekin alde handia dago.
- Hondarribian bizi diren 10 langiletik ia 7k udalerritik kanpo egiten du lan. Beraz, Hondarribia lohiri gisa indartzen ari dela esan daiteke.
- Etxebizitza-merkatuaren hedapen handia, eta bigarren etxea duten pertsonen ehuneko garrantzitsua. Etxebizitzako gero eta jende gutxiago bizi da.
- Bizitegietarako lurzorua erabilerari dagokionez, 2018. urterako ballabidea agor daiteke, hau da lurra, nahiz eta biztanleria oso gutxi hazten ari den.
- Ballabide gutxi dituzten herritarrak udalerritik joaten ari dira.
- Hondarribiko langabezia-tasa %7,7 da, EAEkoa baino txikiagoa eta Gipuzkoakoa baino apur bat handiagoa (%8,5 eta %7,5, hurrenez hurren). 2006 urterako %52,41 da, beraz, beheraka egin du.
- Udalerriko jarduera ekonomikoari dagokionez, Zerbitzua da garrantzi handien duena; izan ere, bertan bizi den biztanleriaren %66,3 ari da zerbitzuen sektorean lanean, %20,6 industriaren sektorean, %6,1 eraikuntzan eta lehen sektorean %7.
- Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorea moteltzen ari da pixkanaka eta hondar-jarduerarako joera hazten.

- Hondarribiko arrantza-jarduerak garrantzi handia du, bai okupazioari dagokionez, bai jarduerari dagokionez. Izan ere, lehen sektorean biztanleria landunaren %7k egiten du lan, eta kopuru horren %5,6k arrantza-jardueran.
- Industriari dagokionez, metalurgia da nagusi, nahiz eta udalerrian jarduera urria izan.
- Hondarribiko merkataritza-dentsitate indizearen arabera, 54 establezimendu daude 1.000 biztanleko, lurraldeko batez bestekoa baino askoz ere kopuru txikiagoa (70,6). 2006 urtean indizea 13,73establezimendu/1.000 biztanleko zen, beraz jeisten ari da. Merkataritza-gune handiak ugaritzen ari dira hiri-inguruko zonaldeetan, eta, horren ondorioz, aisialdi-erosketekin zerikusia duen mugikortasuna hazten ari da.
- Aspalditik datorren antolamendu arazoa, bai eta motorizazioa sustatzeko azpiegitura berrien arazoa; hasiera batean, barrualdeko bide-azpiegitura berriekin eta kanpoaldearekin lotzeko bide berriekin konpontzeko modukoak.
- Aireportuak, berriz, iraunkortasunaren aurkako faktoreak ditu, lehenera ekartzeko konponbide zailekoak.
- Garraioarekin zerikusia duten azpiegiturak ezartzeko ekimen ugari, Jaizkibel eta Jaizkibiako Korridore Intermodala SA osatuz. Pilaketa horren bideragarritasunaren eta iraunkortasunaren inguruan zalantza ugari daude eta jarduerak aztertzen ari dira; bestalde, lurralde-eragina Bidasoa-Txingudirako erabakigarria izango da. Bidasoa-Txingudi, Oarsoaldera eta Donostialdera zabaldu den orbanarantz.
- Bestalde, Herritarren Hautemate-inkestan (Hondarribiko 250 hiritarri egindako inkestetan oinarrituta), herriari eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukerek bigarren balorazio txarrena jaso dute herritarren asebetetze orokorraren mailaren arabera; hain zuzen, "enplegu-aukerak" alderdiak soilik atera du balorazio txarragoa. Balorazio hori txikiagoa da, inkestatutako pertsonak gazteagoak diren heinean.
- Gaur egungo landaredia, giza eraldaketaren emaitza, hariztiak eta ametz-basoak nagusi diren landaredi potentzialaren gainean.
- Fauna-espezie zerrenda luzea, baina habitaten eraldaketen eraginez galtzeko mehatxuan daudenak.
- Indarrean dagoen udal-planak ez ditu bere gain hartzen babeserako estatus berriak eta helburuak lortzeko ikuspegi desberdinak ditu.
- Lurraldearen Zatikako Planaren aurrerakinak kontraesanetan dauden proposamenak mahaigaineratzen ditu; horiek natura-guneak bultzatzearen ingurukoak dira.

- Abeltzaintza-jarduera arautzea eta eremua zehaztea, Jaizkibel kontserbatzeko giltzarria da.
- Txabolak, eta urbanizatzeko eta azpiegiturak jartzeko kanpoko presioa ugaritu egin dira, antolamendurik ez dago eta paduren inguruko arazoak daude.
- Oztopo fisikoek eta kokalekuek natura-guneen isolamendua eragiten dute.
- Gehien erabiltzen den garraiobidea kotxea da.
- Jende asko desplazatzen da oinez.
- Egunero egiten diren desplazamenduen erdia baino gehiago errepikariak dira; hau da, jatorri eta helmuga berekoak dira.
- Desplazamendu gehienak Irunera joateko dira.
- Motorizazio-tasak goranzko joera du.
- Motorizazio-adina gero eta gazteagoa da.
- Irunera joan-etorriak egiteko garraio publikoaren eskaintza ona da. Donostiarako zerbitzua, berriz, eskasa.
- Legezko estaldura eskasa, Txingudiko padurak eta Jaizkibel Natura 2000 Sarean sartzearen ondorioz sortutako araudia ez betetzeagatik.
- 2007. urtean etxeko ur-kontsumoa Hondarribian 135,7 litro/biztanleko/eguneko izan da. Erabilera, berriz, 2000. eta 2007. urteen artean, Hondarribian etxeko kontsumoa %12,1 jeitsi da, eta etxekoa ez dena %12,6 gutxitu. Azpimarratu beharra dago 2000-2007 epealdian, Hondarribiko biztanleria %8,7 igo dala.
- Energia-kontsumoei dagokienez, 2002-2004 epean kontsumo elektrikoa hazi egin da sektore guztietan. Epe horretan etxeetako kontsumoak eta industriako kontsumoak gora egin du, %9 eta %3, hurrenez hurren (kontratu-kopurua ere gehitu da, %8 eta %1), zerbitzu-sektorearen kontsumoak ere %14 egin du gora (kontratuak %5 gehitu dira). 2004-2006 epean energiaren kontsumoak sektore guztietan gorantza egin du industri sektorean izan ezik, honetan, %24,23a jetsi da. Orokorrean 2004-2006 epean fakturatutako energia %12,14 igo da. Erabiltzen diren energia-iturriak, batez ere, ez berriztagarriak dira. Energia berriztagarriak erabiltzen dituen udal instalakuntzarik ez dago.
- Urtetik urtera gero eta hondakin gehiago birziklatzen da. Dena dela, zabortegirako diren hondakin-kopuruak ere gora egin du. Edukiontzi berdean biltzen diren etxeko-hondakinen osagai nagusia sukaldatu gabeko janari-hondarrak dira. Europako Erkidegoko Hierarkiaren printzipioak prebentzioari ematen dio lehentasuna (ondoren, birziklatzeari, konpostari eta energiaren aprobetxamenduari), eta Txingudiko Eskualdeko Hiri-hondakinen Plan Integralean (PIRUAT), berriz, hondakin-kopurua murrizteko eta hondakinak berriz erabiltzeko

helburuak (prebentzioarekin lotuta daude) ez daude zenbatuta, eta, beraz, ez daude bat ere zehaztuta. Hondakinak sortzearen prebentzioan badugu oraindik zer hobetua. Nahiz eta Txingudin birziklatutako hondakinen ehunekoa Gipuzkoako handiena izan, badago zer hobetua oraindik.

- Eskualdean energia berreskuratzeko erraustegi-planta bat eraikitzearen inguruko erabakiaren inguruan, herritarren artean keak izan dira, informazio argia ez delako eman eta erabakia hartu aurretik ez delako debaterik izan. Hori dela eta, protesta mugimendu bat sortu zen. Egun (2008 urtea), erraustegi-plantaren eraikuntza, Donostiako Zubieta auzoan aurreikusten da.
- Pentsatzen dugu, informazio gutxi daukagula modu fidagarrian baloratzeko Hondarribiko airearen kalitatearen egoera zein den.
- Hondarribian ez da ikuspegi kualitatibotik arazo handirik hauteman, ingurune-hotsari dagokionez. Ez daukagu eskura informazio nahikoa horren inguruan azterketa sakonagoa egiteko. Dena den, aireportuaren inguruko arazoak bistakoak dira.